



Giza Garapenari buruzko Txostenaren webgunea: <http://hdr.undp.org>

LABURPENA

Giza Garapenari buruzko Txostena 2006



Eskasia baino gehiago:
Boterea, pobrezia eta munduko ur-krisia

Giza Garapenari buruzko Txostena 2006

Historian zehar, urak erronkarik handienetakoa jarri dio gizateriari. Ura bizi-iturria eta baliabide naturala da, eta ingurunea eta etxeak mantentzen dizkigu. Baina arrisku- eta ahultasun-iturri ere bada. XXI. mendearen hasieran, munduko ur-krisi gero eta sakonagoak mehatxatu egiten ditu giza garapenerako aukerak. Txosten honek krisia eskasiaren ondorioa dela dioen mitoa agerian uzten du, eta arazoaren muinean pobrezia, boterea eta desoreka dagoela azaltzen.

Egun mundua inoiz baino aberatsagoa den arren, urtero ia bi milioi haur hiltzen dira, ur garbia eta saneamendu egokia falta zaielako. Milioika emakume eta neska gaztek orduak eman behar izaten dituzte ura jaso eta eramaten, eta, ondorioz, aukerak murriztu egiten zaizkie. Eta uraren bidez kutsatutako gaixotasunak munduko herrialde pobreenetako ekonomia haztea eta pobrezia gutxitzea galarazten ari dira.

Etxeetatik kanpo ura baliabide produktibo gisa erabiltzeko lehia ere gogortzen ari da. Lehia horren zantzuak dira, besteak beste, ura oinarri duten sistema ekologikoek gainbehera egitea, ibaien emaria gutxitzea eta lurrazpiko ura murriztea. Herrialdeetan gero eta gatazka gogorragoak daude uraren ondorioz, eta nekazaritza-guneetako jende pobrea ateratzen da galtzaile. Herrialdeen artean tentsioak egoteko arriskua ere hazten ari da, nahiz eta lankidetzaren bidez lorpen ederrak egin daitezkeen giza garapenaren arloan.

Giza Garapenari buruzko Txostenak eztabaidak sortzen jarraitzen du, gizateriak aurrean duen erronkarik larrienaren gainean. Giza Garapenari buruzko Txostena 2006:

- 1.100 milioi pertsona ur segurua eskuratzeko biderik gabe eta 2.600 milioi saneamendua eskuratzeko biderik gabe uzten dituen krisiaren azpiko kausak eta ondorioak ikertzen ditu.
- Herrialdeko estrategien eta munduko ekintza-plan baten bidez ura eta saneamendua lortzeko kanpaina adostua bideratzearen alde egiten du.
- Nekazaritzako pobreak baztertzeko eragiten duten eta ur-eskasia dakarten faktore sozial eta ekonomikoak aztertzen ditu.
- Ura kudeatzean sortzen diren mugaz haraindiko tentsioak konpontzeko nazioarteko lankidetzaren lantzea proposatzen du.
- Egile hauen artikulua bereziak dakartzat: Gordon Brown eta Ngozi Okonjo-Iweala, Lula presidentea, Carter presidente-ohia, eta Kofi Annan Nazio Batuetako idazkari nagusia.





LABURPENA Giza Garapenari buruzko Txostena **2006**

Eskasia baino gehiago:

Boterea, pobrezia eta munduko ur-krisia



Nazio Batuetako
Garapen
Programarentzat
(UNDP)
argitaratua

**Euskarazko argitalpena Eusko Jaurlaritzako Garapen
Lankidetzarako Zuzendaritzaren finantziazioari esker egin da.**

Argitaratzaile: UNESCO Etxea
Urkixo zumardia 60, nagusia, esk.
48011 Bilbo
www.unescoeh.org

Itzulpena: Aiora Odriozola eta Ramon Iriarte (Bakun S.L.)
Zuzenketak: Maitane Ugarte (Bakun S.L.)
Edizio-koordinazioa: Joseba Ossa (Bakun S.L.)

Inprimaketa: Gráficas Zubi
Lege-gordailua: SS-1109/05

Copyright © 2006
by the United Nations Development Programme
1 UN Plaza, New York, New York, 10017, USA

All rights reserved. No part of this publication may be reproduced, stored in a retrieval system or transmitted, in any form or by any means, electronic, mechanical, photocopying, recording or otherwise, without prior permission.

Palgrave Macmillan
Houndmills, Basingstoke, Hampshire RG21 6XS and
175 Fifth Avenue, New York, NY 10010

Companies and representatives throughout the world

Palgrave Macmillan is the global academic imprint of the Palgrave Macmillan division of St. Martin's Press LLC and of Palgrave Macmillan Ltd.

Macmillan is a registered trademark in the United States, United Kingdom, and other countries.
Palgrave is a registered trademark in the European Union and other countries.

9 8 7 6 5 4 3 2 1

Printed by Toppan Printing Company America Inc. using recycled paper and environmentally compatible technology.

Cover and layout design: Grundy & Northedge Information Designers, London

Maps and graphics: Philippe Rekacewicz, Narestø, Norway

Technical editing, layout and production management: Communications Development Incorporated, Washington, D.C.

Editors: Bruce Ross-Larson, Meta de Coquereaumont and Christopher Trott

For a list of any errors or omissions found subsequent to printing, please visit our website at <http://hdr.undp.org>

Liburu hau klororik gabeko paperean inprimatu da.

Giza Garapenari buruzko 2006ko Txostena prestatu duen taldea

Zuzendaria eta egile nagusia

Kevin Watkins

Ikerketa, erredakzioa eta estatistikak

Liliana Carvajal, Daniel Coppard, Ricardo Fuentes, Arunabha Ghosh, Chiara Giamberardini, Claes Johansson (estatistika-burua), Papa Seck, Cecilia Ugaz (politika-aholkularia) eta Shahin Yaqub.

Estatistika-aholkularitza: Tom Griffin

Produkzio-zuzendaritza eta itzulpenaren koordinazio-lana: Carlotta Aiello eta Marta Jaksona

Editore-lana: Bruce Ross-Larson, Meta de Coquereaumont eta Christopher Trott

Azala eta maketaren diseinua: Peter Grundy and Tilly Northedge

Mapak eta grafikoak: Philippe Rekacewicz

Giza Garapenari buruzko Txostenerako Bulegoa (HDRO)

Giza Garapenari buruzko Txostena talde-lanaren emaitza da. Giza Garapenari buruzko Txostenerako Talde Nazionalerako (NHDR) kideek iruzkinak eta aholkuak ematen dituzte ikerketa-prozesuan. Gainera, garapen-bidean dauden herrialdeetako Giza Garapenari buruzko Txostenerako sare zabalagoarekin lotzen dute txostena. NHDR taldearen buru Sarah Burd-Sharps (zuzendariordea), dugu, eta bertako kide dira Amie Gaye, Sharmila Kurukulasuriya, Hanna Schmitt eta Timothy Scott. Bestalde, HDROko bulego-lana egiten dutenak Oscar Bernal, Mamaye Gebretsadik, Melissa Hernandez, Fe Juarez eta Mary Ann Mwangi dira. Sarantuya Mend arduratzen da jardueraz, eta Marisol Sanjines da HDROren hedapen- eta komunikazio-programaren burua.

Hitzaurrea

Giza garapena, batez ere, pertsoneri estimatzen duten bizitza izaten uztea da, eta gizaki diren aldetik duten ahalmenaz ohartaraztea. Giza garapenerako araudia Milurtekoko Garapen Helburuetan emandako ikuspegi zabalean dago jasota gaur egun. Nazioartean adostutako epe baterako helburuak dira horiek, muturreko pobrezia murriztu, genero-berdintasuna hedatu eta osasunerako nahiz hezkuntzarako aukerak hobetzeko ezarriak. Helburu horiekiko aurrerapenak ebaluazio-erreferentzia dira, eta horiei esker zehatz daiteke nazioarteko komunitateak zer-nolako irmotasuna duen konpromisoak ekintza bihurtzeko. Are gehiago, gure mundu independente honetan, oparotasun partekatua eta guztion segurtasuna lantzeko bete beharreko baldintzak dira.

Aurtengo *Giza Garapenari buruzko Txostenean* jorratzen den gaiak –uraren eta saneamenduaren gaiak– eragin sakona du gizakiaren ahalmenean eta Milurtekoko Garapen Helburuetarako aurrerapenean. Historian, ura eskuratzeko aukera izatearen mende egon da giza garapena, bai eta ura baliabide emankor gisa erabiltzeko gizarteek zuten trebetasunaren mende ere. Etxeko beharretarako ura eta produkzio-sistemako beharretarako ura izan da giza garapenaren oinarria. Hala ere, gizateriaren zati handi bati falta zaizkio, oraindik ere, oinarri horiek.

Krisi hitza batzuetan gehiegi erabiltzen da garapen kontuetan. Baina urari buruz ari garenean, gero eta jende gehiagok aitortzen du munduak krisi latzari egin behar diola aurre eta, kontrolatu ezean, Milurtekoko Garapen Helburuak lortzeko aurrerapena desbideratu eta giza garapena geldiaraziko duela. Zenbaiten ustez, munduko ur-krisiaren arrazoia urez hornitzeko zailtasuna da. Txostenak ikuspegi hori gaitzesten du. Txostenak dioenez, krisiaren sustraiak pobrezian, berdintasun-ezean eta botere-harreman desorekatuan daude, bai eta ura kudeatzeko politika desegokietan ere, urritasuna areagotzen baitute.

Bizitzeko ura izatea, gizakiaren oinarrizko beharrezko bat izateaz gain, funtsezko giza eskubidea ere bada. Alabaina, gure mundu gero eta

oparoago honetan, 1.000 milioi laguni ukatu egiten zaie ur garbia izateko eskubidea, eta 2.600 milioi laguni saneamendu egokia falta zaie. Kopuru orokor horiek arazoaren alderdi bat baino ez dute adierazten. Urtero 1,8 milioi haur hiltzen dira beharretarako jota, eta ur zikinak nahiz saneamendu eskasak eragindako beste gaixotasun batzuk direla eta. XXI. mendearen hasieran, ur zikina da munduko haur-heriotzen bigarren kausa. Egunero-egunero milioika emakumek eta neskatilak ura biltzen dute familiarentzat, eta ohitura horrek lan-arloan eta hezkuntzan dagoen genero-desberdintasuna indartzen du. Bien bitartean, ur- eta saneamendueskasiak eragindako osasun txarra produktibitatea eta hazkunde ekonomikoa eragozten ari da, globalizazioaren egungo ereduaren bereizgarri diren berdintasun-gabezia sakonak indartzen baititu, eta etxe ahulak pobrezia-zikloetan harrapatzen.

Txostenak erakusten duen eran, arazoaren iturriak ez dira berak herrialde guztietan, baina hainbat gauza agerikoak dira. Lehenik eta behin, herrialde gutxiak daukate ura eta saneamendua lehentasun politikotzat, aurrekontuen kuota mugatuetan ikusten den moduan. Bigarrenik, munduan pobreen direnetako batzuek munduko prezio garestienetakoak ari dira ordaintzen uraren truk; horrek erakusten

du uraren tratamendua mugatua dela jende pobrea bizi den auzuneetan eta herrixka informaletan. Hirugarrenik, nazioarteko komunitateak huts egin du urari eta saneamenduari lehentasunik ez ematean, Milurtekoko Garapen Helburuen inguruan sortutako garapenerako elkarteetan. Arazo horietako bakoitzaren azpian hauxe dago: sarritan, ur- eta saneamendu-krisia gehien pairatzen ari den jendeak —jende txiroak, oro har, eta emakume txiroek, batik bat— ez du izaten boz politikorik ura izateko eskubidea aldarrikatzeko.

Gai horiek eta beste batzuk tentu handiz aztertzen ditu txostenak. Ezartzen dituen erronkak izugarriak dira. Baina egileek ez dute etsipenerako biderik ematen. Garbi dago borroka hau irabaz dezakegula. Herrialde askok aurrerapen ikaragarriak egin dituzte ur garbiaren eta saneamenduaren alorrean. Garapenbidean dauden herrialdeetan, auzune pobreetan eta nekazari-herrixketan bizi den jendea antolatzen ari da, esaterako, baliabideak mobilizatuz eta energia eta berrikuntza landuz arazoei aurre egiteko. Egungo herrialde aberatsek duela mende bat bezalaxe, XXI. mendearen hasieran, badaukagu ur- eta saneamendukrisia atzean uzteko adina finantza-bide, teknologia eta gaitasun. Ondo diseinatutako eta egoki finantzatutako plan nazionaletan, ura eta saneamendua eskuratzeko aukera zabaltzeko kanpaina bat adostea falta izan da, bai eta plan horiek babestuko dituen mundu osorako ekintza-plan bat ere, borondate politikoa sustatu eta baliabideak mobilizatze aldera.

Lanerako urak beste erronka batzuk ezartzen ditu. Mundua ez da ari urik gabe gelditzen, baina jende ahulena, milioika jende, ur-eskasia gero eta larriagoan bizi da. 1.400 milioi lagun inguru bizi da beharrak asetzeko nahikoa ur ez dakarten ibaien arroetan. Ura gehiegi erabiltzen da, eta horren zantzuak oso argiak dira: ibaiak guztiz lehortzen ari dira, lur azpiko ur geruzak gutxitzen, eta uretan oinarritutako ekosistemak bizkor-bizkor degradatzen. Garbi esateko, mundua bere baliabide natural preziatuenetakoa agortzen ari da, eta hurrengo gizaldiek jasoko duten zor ekologiko larria handitzen.

Are gehiago egin beharra dago klima-aldaketa dela bide giza garapenak dituen mehatxuen aurrean. Txostenak nabarmentzen duen

eran, hori ez da etorkizuneko mehatxua. Lurra berotzen ari da jada, eta horrek atzera bota ditzake herrialde askotan belaunaldiz belaunaldi erdietsitako giza garapeneko lorpenak. Gaur egun, gain-gainean ditugu zenbait erronka; adibidez, ur-gabezia etengabea den eremuetan ur-hornidura eskasa egotea, muturreko eguraldiak ugaritzea eta glaziarrak urtzea. Politika publikoak, erronka horiekin topo egin zuenetik, bi urrats eman ditu: batetik, karbono-isuriak gutxituz klima-aldaketa murrizteko alde askotako ekintza jarri du abian; bestetik, askoz ere gehiago sustatu ditu egokitzapen-estrategiak.

Dagoeneko argi eta garbi dago uraren lehia aregotu egingo dela hurrengo hamarkadetan. Biztanleriaren hazkundea, urbanizazioa, industria-garpena eta nekazaritzako beharrak direla-eta, handitzen ari da baliabide mugatu horren eskaria. Hala ere, gero eta jende gehiago dago etorkizuneko uraren erabilera-ereduetan ingurumenaren beharrak kontuan hartzearen alde. Bi arrisku nabarmen agertuko dira. Batetik, herrialde barruko uraren lehia gogortzen den heinean, talde boteretsuagoek ura izateko eskubidea ken diezaikete eskubide gutxiago dituen jendeari —besteak beste, nekazari txikiei eta emakumeei—. Bestetik, ura baliabide iheskor nagusia denez, eta ibaiak, aintzirek eta akuiferoek herrialdeen mugak gainditzen dituztenez, aukera handia dago ura falta den eremuetan mugaz gaindiko tentsioak egoteko. Bi arriskuei politika publikoen eta nazioarteko lankidetzaren bidez eutsi eta aurre egin dakieke, baina kezkatzeko zantzuak begi-bistakoak dira bi alderdietan.

Txosten hau Nazio Batuen sistemako nazioarteko adituek eta langileek eginiko ikerketa eta azterketaren emaitza da. Milurtekoko Garapen Helburuak eta giza garapena lortzeko aurrerapenean zerikusi handia izango duten gaiei buruz eztabaida eta elkarrizketa bultzatzea da xedea.



Kemal Derviş
Administraria

Txosten honetako azterketek eta aholkuek ez dute zertan islatu Nazio Batuen Garapen Programaren ikuspuntua, ezta Zuzendaritza Batzordearena edota estatu kideena ere. Txostena NBBGPren ardurapean dagoen argitalpen independentea da. Goi-mailako aditu eta aholkulariz osatutako talde baten eta Giza Garapenari buruzko Txostenerako taldearen lankidetzaren fruitu da. Giza Garapenari buruzko Txostenaren Bulegoko Kevin Watkins izan da honen guztiaren buru.

2006ko Giza Garapenari buruzko Txostenaren edukia

Ikuspegi orokorra

Eskasia baino gehiago: pobrezia, boterea eta munduko ur-krisia

Mundua urari eta saneamenduari ekiteko zortzi arrazoi: Milurtekoko Garapen Helburuekiko lotura

1. kapitulua

Munduko ur- eta saneamendu-krisia amaitzea

Historia-ikasgaiak
Munduko egungo ur- eta saneamendu-krisia
Giza garapeneko kostu ikaragarriak
Krisia pobreentzat, batez ere
Milurtekoko Garapen Helburuak eta gehiago: bide onera itzultzea
Aurrerapena errealitate bihurtzea

2. kapitulua

Giza kontsumorako ura

Ura: zergatik ordaintzen dute gehiago eta eskuratzen dute gutxiago pobreek?
Sarea kudeatzea, eraginkortasuna eta ekitatea lortzeko
Ondorioak adieraztea: politikak

3. kapitulua

Saneamendu-defizit beldurgarria

2.600 milioi pertsona saneamendurik gabe
Zergatik doa saneamendu-arloa ur-arloaren hain atzetik?
Eremu baten barruan dagokien guztiei saneamendua helaraztea
Hemendik aurrerako bidea

4. kapitulua

Ur-eskasia, arriskua eta ahultasuna

Munduan ur-krisia dagoela kontuan hartuta, eskasiari beste ikuspegi batetik begiratzea
Ur-eskasia, arriskua eta ahultasuna kudeatzea
Hemendik aurrerako bidea

5. kapitulua

Nekazaritzako uraren lehia

Ura eta giza garapena: bizimoduarekiko loturak
Urarengatik lehia, eskubideak eta borroka
Gobernantza hobea ureztatze-sistemetan
Pobreentzat uraren produktibitatea hobetzea
Hemendik aurrerako bidea

6. kapitulua

Mugaz gaindiko ura kudeatzea

Interdependentzia hidrojlogikoa
Lankidetzarik ezaren kostua
Lankidetzaren onurak
Ibai-arroen baitako lankidetzak giza garapenerako

Giza garapenaren adierazleak

Giza garapenaren egoera
Irakurleentzako gida eta taulei buruzko oharrak
Adierazleen taulak



Ikuspegi orokorra

Eskasia baino gehiago

Boterea, pobrezia eta munduko ur-krisia

Munduko ur-krisiak
gizateriaren zati
handi bat pobrezian,
ahultasun-egoeran
eta segurtasunik
gabe uzten du

Putzu honetako ura ez da ona. Beste aukerarik ez dugulako hartzen dugu. Animalia guztiek putzutik edaten dute, eta komunitateak ere bai. Uraren ondorioz, hainbat gaixotasun izaten ditugu.

Zenebech Jemel, Chobare Meno, Etiopia

Horixe eskolan egon nahi nukeela. Irakurtzen eta idazten ikasi nahi dut... Baina nola? Amak ura ekartzeko behar nau.

Yeni Bazan, 10 urte, El Alto, Bolivia

Hemengo baldintzak ikaragarriak dira. Ur zikinak daude edonon. Gure ura kutsatzen digute. Gehienek pertzak eta plastikozko zorroak erabiltzen dituzte komun modura. Gure haurrek beherakoa eta beste gaixotasun batzuk izaten dituzte, guztia hain dago zikin.

Mary Akinyi, Kibera, Nairobi, Kenya

[Lantegiek] ur mordoa erabiltzen dute; guk, berriz, ia ez daukagu beharrian oinarritzkoenak ere asetzeko adina, are gutxiago uzta ureztatzeko.

Gopal Gujur, nekazaria, Rajasthan, India

Lau herrialdetako lau ahots gai berberak elkartuta: ura izateko eskubiderik ez izatea. Gabezia hori estatistiken bidez neur daiteke, baina zenbaki horien atzean gizakien aurpegiak daude, beraien ahalmenak garatzeko aukera ukatzen zaien milioika gizakiren aurpegiak, hain zuzen. Ura, bizitzeko gaia eta oinarrizko giza eskubidea, eguneroko krisiaren muinean dago, eta krisi hori munduko pertsona ahulenek, milioika eta milioika pertsonak, jasaten dute; krisi horrek izugarri mehatxatzen du bizia eta suntsitzen du bizibidea.

Gerrak eta hondamendi naturalak hedabideetako izenburuetan agertzen dira; ez, ordea, munduko ur-krisia. Nazioarteko ekintza adostua ere ez du sustatzen. Gosea bezalaxe, ur-gabezia isilpeko krisia da; pobreek jasan egiten dute, eta arazo horiek konpontzeko baliabideak, teknologia eta botere politikoa dituztenek toleratu. Alabaina, krisi hori giza

garapena geldiarazten ari da, gizateriaren zati handi bat pobrezian, ahultasun-egoeran eta segurtasunik gabe uzten du-eta. Krisi horretan jende gehiago hil da gaixotasunen ondorioz, edozein gerratan armen bidez baino. Gainera, bizitzeko aukeretan dagoen desberdintasun gordina indartzen du; hori dela-eta, gero eta oparagoa eta interkonektatuagoa bihurtzen ari den mundu hau herrialde aberats eta pobreetan banatzen ari da, eta herrialdeen barruan ere jendea banatzen ari da aberastasunaren, generoaren eta beste desabantaila-adierazle batzuen arabera.

Giza garapenerako, ur eta saneamenduaren krisia gaintitza da XXI. mende hasierako erronka nagusietakoa. Erronka horri heltzeko nazioarteak eta herrialdeek adostutako erantzuna ematea eta erantzun hori arrakastatsua izatea lagungarria izango litzateke, bai osasun publikoa eta hezkuntza hobetzeko, bai pobrezia murrizteko, eta dinamismo

Baina munduko ur-krisiaren muinean dagoen urritasuna boterearen, pobrezia eta berdintasun-ezaren ondorioa da, eta ez, benetan, eskuratzeko modurik ez egotearena

ekonomikorako iturri ere izango litzateke. Horrek indar erabakigarria emango lieke Milurtekoko Garapen Helburuei; hau da, munduan pobrezia murrizteko gobernuek ezarritako helburuei. Sufrimendua eta giza ahalmenaren galera ekidin daitezke, baina toleratu egin ohi dira maila bateraino; gobernu guztiek ikusi behar lukete hori etikoki defendazina dela eta galerak dakartzala ekonomiarako.

Ura bizitzeko, ura lanerako

“Uraren bidez, bizia ematen diogu guztiari”, dio Koranak. Irakaspen soil horrek jakituria sakona dauka atzean. Jendeak ura behar du, oxigenoa behar duen bezalaxe: urik gabe bizirik ezin egon. Baina urak zentzu zabalagoan ematen du bizia. Jendeak ur garbia eta saneamendua behar du osasuna eta duintasuna izateko. Eta etxeetan beharrezko izateaz gain, urak sistema ekologikoak iraunarazten ditu, eta energia sortzen du, bizibidea ematen duten produkzio-sistemarako.

Azkenaldian, giza garapena ahalmenak garatzean datza. Jendeak zer egin dezakeen eta zer bilaka daitekeen da kontua —ahalmenak—, eta zeinen aske den bizitzan benetako aukerak egiteko. Urak giza garapenaren alderdi guztiak hartzen ditu. Gizakiei etxean ur garbia izatea ukatzen zaienean edo ura baliabide produktibo gisa erabiltzeko aukerarik ematen ez zaienean, aukerak eta askatasunak mugatzen zaizkie, horrek osasun txarra, pobrezia eta ahultasuna dakarkie-eta. Urak bizia ematen dio guztiari, baita giza garapenari eta giza askatasunari ere.


Aurtengo Giza Garapenari buruzko Txostean, munduko ur-krisiaren inguruko bi alderdi desberdini begiratu diegu. Lehenengoa, bizitzeko urari buruzkoa, 1-3 kapituluetan landu dugu. Ur garbia eramatea, hondakin-urak kentzea eta saneamendua ematea giza garapenaren hiru oinarri nagusi dira. Oinarri horiek beren lekuan ez jartzearen kostuei erreparatu diegu, eta estrategia batzuk ezarri ditugu, ura eta saneamendua denon eskura jartzeko. Bigarren gaia, lanerako urari buruzkoa, 4-6 kapituluetan jorratu dugu. Kapitulu horietan, ura herrialdeen artean eta mugaz gaindi banatu beharreko baliabide produktibotzat hartu dugu, eta orain gobernu askok ura berdintasunez eta eraginkortasunez kudeatzeko dituzten eronka handiak nabarmendu ditugu.

Zenbaitek urritasunarekin lotzen dute urari buruzko munduko eronka. Thomas Malthusek XIX. mendeko buru politikoak asalatu zituen, etorkizunean janari gutxi egongo zela aurreikusi zuenean, eta haren pentsaera gero eta zabalduago dago urari buruzko nazioarteko eztabaidetan. Biztanleria hazten eta munduko ur-eskaria handitzen ari denez, etorkizunak eskasiaren “aritmetika ezkorra” dakarrela ari dira esaten. Guk ez dugu onartzen abiapuntu hori. Uraren eskuragarritasuna kezka handia da herrialde batzuetan. Baina munduko ur-krisiaren muinean dagoen urritasuna boterearen, pobrezia eta berdintasun-ezaren ondorioa da, eta ez benetan eskuratzeko modurik ez egotearena.


Hori ez da inon agertzen bizitzeko uraren alorrean baino garbiago. Gaur egun, garapen-bidean dauden herrialdeetako 1.100 milioi lagunek ez dute ura eskuratzeko bide egokirik, eta 2.600 milioi oinarrizko saneamendua falta zaie (ikus 1. irudia). Bi gabezia parekide horiek erakundeetan eta aukera politikoetan dute jatorria, ez uraren eskuragarritasunean. Etxerako urak uraren erabileraren oso zati txikia hartzen du —normalean, guztizkoaren % 5—, baina ur garbia eta saneamendua izateko aukera asko aldatzen da etxe batetik bestera. Asia, Latinoamerika eta Sahara azpiko Afrikako hirietan, asko irabazten den eremuetan, jendeak ehunka litro ur erabiltzen du egunean; zerbitzu publikoek eramaten dizkiete etxera, oso merke. Aitzitik, herrialde horietan bertan, auzune pobreetako bizilagunek eta nekazari-eremuetako etxe pobreek 20 litro ur baino gutxiago erabil dezakete egunean pertsonako, giza beharrian funtsezkoenak asetzeko. Emakumeek eta neska gazteek desabantaila handiagoa dute, beraiek joaten baitira ur bila, beren denbora eta hezkuntza albo batera utzita.

Antzekoa gertatzen da lanerako urarekin ere. Mundu osoan, nekazaritza eta industria muga hidrologikoen estutze horretara egokitzen ari dira. Baina eskasia oso hedatuta badago ere, ez dute guztiek bizi-arazo hori. Indian, ur falta dagoen eremuetan, ureztapen-ponpek 24 orduz erazten dute ura akuiferoetatik nekazari aberatsentzat; alboko minifundistek, berriz, euriaren gorabeheren menpe ibili behar dute. Hor ere, eskasiaren benetako kausa, gehiengotan, erakundeen eta politikaren kontua da, ez benetako hornidura-gabezia. Herrialde asko-

Ur-iturri hobeturik eskura ez duen jendea




Saneamendu hobeturik eskura ez duen jendea




2004an ur-iturri hobeturik eskura ez zuen jendea (milioiak)

Guztira: 1.100 milioi



2004an saneamendu hobeturik eskura ez zuen jendea (milioiak)

Guztira: 2.600 milioi



Iturria: Kalkulurako, UNICEF 2006a hartu da oinarritzat.

tan, eskasia politika publikoen ondorioa da, ura gehiegi erabiltzea bultzatu baitute, laguntzak emanez eta merkeegi jarritz.

Ur nahikoa eta gehiegi dago munduan etxerako, nekazaritzarako eta industriadarako. Arazoa hau da: batzuek —pobreek, batez ere— sistematikoki ez dute ura eskuratzeko aukerarik, pobreak direlako, legezko eskubide mugatuak dituztelako, edota politika publikoek mugatu egiten dietelako bizitzeko eta lanerako ura ematen duten azpiegiturak erabiltzea. Laburbilduz, pobreen aurka egiten duten erakundeek

eta prozesu politikoek sortzen dute eskasia. Ur garbiari dagokionez, herrialde askotan, pobreek gutxiago jasotzen dute, gehiago ordaintzen dute eta eskasiarekin lotutako giza garapeneko kostu okerrenak beraiek jasaten dituzte.

Giza segurtasuna, hiritartasuna eta justizia soziala

Duela hamar urte baino gehiago, 1994ko Giza Garapenari buruzko Txostenak giza segurtasunaren gaia sartu zuen garapenari buruzko eztabaida zabalagoan. Helburua herrialdeko segurtasuna-

Norbanako orok egunero gutxienez 20 litro ur eskuratzeko aukera duela bermatzea gutxieneko baldintza da, ura izateko eskubidea errespetatzeko

ren pertzepzio estuetatik harago begiratzea zen —mehatxu militarrean eta atzerriko politiken helburu estrategikoak babestean oinarrituta baitzeuden—, hartara segurtasuna gizakien bizitzetan oinarrituta ikusteko.

Ur-segurtasuna beste kontzeptu zabalago baten osagai garrantzitsua da: giza segurtasunarena. Zentzu zabalagoan, ur-segurtasuna norbanako orok nahikoa ur seguru prezio onargarrian eskuratzeko aukera izango duela bermatzea da, bizitza osasuntsua, duina eta produktiboa izateko, eta, era berean, ura ematen duten eta ura behar duten sistema ekologikoak zaintzea. Baldintza horiek betetzen ez direnean, edo ura eskuratzeko bidea eteten denean, jendeak giza segurtasuneko arrisku larriak izaten ditu, osasun kaskarraren eta lana eten beharraren ondorioz.

XXI. mendearen hasieran, herrialdeko segurtasunari buruzko kezkek nazioarteko agendaren zati handi bat hartu dute. Gatazka gogorak, mehatxu terroristei buruzko kezkek, arma nuklearrak hedatzea, eta armen eta drogen legez kanpoko merkataritza; erronka handiak dira horiek guztiak. Egoera hori aurrean izanik, erraza da giza segurtasunerako funtsezko premia batzuek ahaztea, baita urarekin lotutakoez ere. Ur zikina eta saneamendu eskasa direla-eta urtero hiltzen diren 1,8 milioi haurren aldean, gutxi dira indarkeriazko gatazketan hildakoak. Ezein ekintza terroristak ez du eragiten ur- eta saneamendu-krisiaren hondamendi ekonomikoaren parekorik. Hala ere, gaia apenas agertu den nazioarteko agendan.

Baina herrialdeko segurtasun-beharrekiko kontraste horrez gainera, badira beste kontraste harrigarri batzuk ere. Gaur egun, GIB/HIESaren krisiari aurre egiteko nazioarteko ekintza instituzionalizatu egin da G8 taldearen agendan. Hegazti-gripeak ekarritako balizko osasun-krisi publikoaren mehatxuarean, mundua azkar mobilizatu da ekintza-plan globala idazteko. Baina ur- eta saneamendu-krisiaren errealitate biziak oso erantzun txikia eta zatikatua besterik ez du lortu. Zergatik hori? Hona hemen azalpen onargarri bat: GIB/HIESak eta hegazti-gripeak ez bezala, ur- eta saneamendu-krisiak herrialde pobreetako jende pobrea mehatxatzen du zuzenen eta azkarren; hau da, nazioarteak eta herrialdeek giza segurtasunaren ikuspegia eratzerakoan alde batera uzten diren taldeak.

Jendearengan duen eragin suntsigarri nabarmenaz gain, uraren segurtasun-ezak justizia sozialaren printzipio oinarritzkoenak urratzen ditu. Besteak beste, hauek:

- *Berdintasunezko hiritartasuna.* Norbanako orok du eskubide zibil, politiko eta sozial berak izateko eskubidea, bai eta eskubide horiek modu eraginkorrean erabiltzekoa ere. Uraren segurtasun-ezak arriskuan jartzen ditu eskubide horiek. Ura jasotzen orduak eta orduak ematen dituen emakumeari, edo etengabe urarekin lotutako gaixotasunak dituenari, gehiago kostako zaio gizartean parte hartzea, bere gobernu hautatzen parte har badezake ere.
- *Gutxieneko soziala.* Herritar guztiak izan behar lukete oinarritzko beharrak asetzeko eta bizitza duina izateko adina baliabide eskuratzeko aukera. Ur garbia gutxieneko sozialaren parte bat da; pertsona bakoitzak egunean gutxienez 20 litro eskuratzeko aukera izan beharko luke.
- *Aukera berdintasuna.* Aukera berdintasuna, justizia sozialerako gakoa, murriztu egiten du uraren segurtasun-ezak. Gehienek onartuko lukete hezkuntzarako aukera berdintasunaren osagaia dela. Adibidez, haur batzuk ezin dira eskolara joan, ur zikinaren ondorioz etengabe gaixo daudelako. Haur horiek ez dute, inondik inora, hezkuntza- eskubiderik.
- *Bidezko banaketa.* Gizarte guztiak jartzen dizkiete nolabaiteko muga batzuk desberdintasun justifikagarriei. Etxean ur garbia edo landan ekoizpenerako ura eskuratzeko aukeretan desoreka handia egotea ez dator bat bidezko banaketaren irizpidearekin, batez ere, horren ondorioz haur ugari hiltzea eta pobrezia handia sortzea ekidin bazitekeen.

Ura giza eskubidetzat hartzean azaleratzen dira azpiko kezka horiek. EBko idazkari nagusiak esan bezala, “Ur segurua izatea oinarritzko giza beharrezkoa da, eta, hortaz, funtsezko giza eskubidea.” Ura izateko giza eskubidearen alde egitea bera helburua da, eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko eskubide zabalagoi eta legez bete beharreko beste tresna batzuei oinarria emateko modua, besteak beste, bizitzeko eskubideari, eta hezkuntza, osasun eta etxe egokia izateko eskubideari. Norbanako orok oinarritzko premiak asetzeko egunean gutxienez 20 litro ur

eskuratzeko aukera duela bermatzea gutxieneko baldintza da ura izateko eskubidea errespetatzeko —eta gutxieneko xedea gobernuentzat—.

Giza eskubideak ez dira aukerako gehigarriak. Eta gobernu bakoitzaren nahien arabera onartu edo baztertu beharreko legezko xedapenak ere ez dira. Bete beharreko eginkizunak dira, balio unibertsalekin bat datoz eta gobernuak ardurak hartzera behartzen dituzte. Hala ere, ura izateko giza eskubidea behin eta berriro eta leku askotan urratzen da inolako zigorrik gabe, eta pobreen giza eskubideetan gertatzen da abusu larriena.

Milurtekoko Garapen Helburuak 2015.

urterako lortzea: gizatasun proba

Egun 10 urte baino gutxiago geratzen dira 2015era arte, Milurtekoko Garapen Helburuak lortzeko. Helburu horiek nazioarteko komunitateak ezarri ditu, epemuga eta guzti, muturreko pobrezia eta gosea murrizteko, haurren heriotzak gutxitzeko, haurrei hezkuntza emateko eta genero-desberdintasunak gainditzeko. Gobernuak nolako erantzuna ematen dioten uraren krisiari, halako hobekuntzak izango ditu arlo horietako bakoitzak.

Milurtekoko Garapen Helburuak erreferentzia-puntu dira, ura izateko giza eskubidearen alde eginiko hobekuntzak neurtzerakoan. Horregatik, edateko ur segurua eta oinarritzko saneamendua eskuratzeko aukera iraunkorrik ez duen munduko biztanleriaren ehunekoa erdira murriztea —7. helburua, 10. puntua— oinarritzko helburua da. Baina helburu hori lortzea funtsezkoa da beste helburu batzuk erdiesteko. Ur garbiak eta saneamendua hainbat eta hainbat haurren bizia salbatuko lukete, hezkuntza hobetzen lagundu eta jendea pobrezian egonazten duten gaixotasunetatik askatu.

Ur eta saneamendurako Milurtekoko Garapen Helburua lortzeko premia ezin da larriagoa izan. Helburuak lortzen badira ere, 2015ean 800 milioi lagun baino gehiago egongo dira urrik gabe oraindik, eta 1.800 milioi saneamendurik gabe. Alabaina, munduan aurrerapenak egin diren arren, ez dira nahikoak; batik bat, herrialde txiroenetan. Egoera hori aldatzeko, hurrengo hamarkadan etengabe jardun beharko da lanean, eta, aldi berean, egungo ohiko negozio-eredua erabat alde batera utzi beharko da.

Helburuak lortzeko data, 2015a, garrantzitsua da arrazoi praktikoak eta sinbolikoak

direla medio. Alderdi praktikotik, denbora amaitzen ari dela gogorarazten digu, eta emaitzetarako beharrezko inbertsioak eta politikak abian jartzeko epemuga hurbiltzen ari dela. Alderdi sinbolikotik, 2015ak garrantzi sakonagoa du. Urte horretan munduak duen egoerak egungo nazioarteko lankidetzaren egoera epaituko du. Milurtekoko Garapen Helburuak betetzeko agindua sinatu zuten politikaburuak belaunaldiari ispilua jarriko dio aurrean, eta agindutakoa bete den ala ez epaituko du.

2015eko uneren batean, beste gertaera bat ere izango da, ez hain garrantzitsua, baina bai oso sinbolikoa. AEBetako Aeronautika eta Espazioaren Agentzia Nazionalak (NASA) Jupiter Icy Moons Proiektua jarriko du abian. Orain garatzen ari diren teknologia erabiliz, espazio-ontzi bat bidaliko du, Jupiterren hiru ilargiren orbitan sartzera. Asmoa izotzezko gainazalaren azpian dauden ur gaziko aintzira handien osaera ikertzea eta bizia egoteko baldintzak badauden egiaztatzea da. Gizateriaren ironia handia litzateke —eta tragikoa— beste planetetako bizitzeko ahalmena nolakoa den ikertzen milaka milioi dolar xahutu eta, aldi berean, Lur planetako bizia eta giza ahalmenak suntsi daitezen uztea, lan gutxiago behar duten teknologiak falta zaizkiolako: ur garbia eta saneamendua denei eramateko azpiegiturak, alegia. Basokada bat ur garbi eta komuna ematea nekeza izan daiteke, baina horretarako ez da koheteak sortzeko zientzia behar.

Mahatma Gandhik honela esan zuen behin: “egiten dugunaren eta egiteko gai garenaren arteko aldea nahikoa litzateke munduko arazo gehienak konpontzeko”. Iruzkina horrek zeresan itzela dauka Milurtekoko Garapen Helburuetarako. Egun, inoiz ez bezalako baliabideak eta teknologia eskuragarri ditugunean, 2015erako helburuak gure eskumenetik kanpo daudela esatea ez da defendagarria, ez alde intelektualetik, ez moraletik. Hobekuntzak izan arren, ezarritako helburu guztiak lortzen ez badira, ez genuke horrekin aski izan behar, ez eta gizateriaren sektore osoak atzean uzten dituzten erdizkako neurriekin ere.

Ura bizitzeko: uraren eta saneamenduaren munduko krisia

Ur garbia eta saneamendua dira giza garapena lortzeko bide ahaltsuenak. Aukerak zabaltzen dituzte, duintasuna indartzen dute, eta osasuna

Ura eta saneamendua

“eskura ez izatea”

eufemismo fina da gabezia-

mota horri deitzeko,

bizia mehatxatu, aukerak

suntsitu eta giza duintasuna

suntsitzen baitu

Ura eta saneamendua dira gobernuek eskura duten sendagai prebentibo ahaltsuenetakoa, gaixotasun infekziosoak gutxitzeko. Beherakoaren eta beste gaixotasun hilgarri batzuen aurka inbertitzea elgorriaren aurka immunizatzea bezalaxe da: bizia salbatzen du.

hobetzearen eta aberastasuna handitzearen gupil zoroa sortzen laguntzen dute.

Herialde aberatsetan bizi direnak ozta-ozta ohartzen dira, gaur egun, ur garbiak nola sustatu zuen aurrerapen soziala beren herrialdeetan. Duela ehun urte baino zertxobait gehiago, Londres, New York eta Paris gaixotasun infekziosoen gune ziren, eta beherakoak, disenteriak eta sukarrak tifoideak osasun publikoa hondatzen zuten. Orduko haurheriotzen tasak eta egun Sahara azpiko Afrikako zati handi batekoak parekoak dira. Industrializazioak gero eta aberastasun gehiago sortzen zuen eta errenta asko hazten zuen, baina haurren heriotzatasua eta bizi-itxaropena ez ziren ia aldatzen.

Ur- eta saneamendu-kontuak goitik behera berritzeak aldatu zuen egoera hori. Ur garbia giza aurrerapenean aurrera egiteko tresna bihurtu zen. Gizarte-erreformarako koalizioek nahiz kezka moralak eta bakoitzaren interes ekonomikoek bultzatuta, gobernuek ura eta saneamendua jarri zuten estatuen eta herritarren arteko itun sozial berriaren muinean. Belaunaldi batean, abian jarri zituzten ura eta saneamendua denontzat eskuragarri jartzeko beharrezko finantzaketa, teknologia eta arauak.

Azpiegitura berriak ur zikinaren eta gaixotasun infekziosoen arteko lotura eten zuen. Kalkulu batzuen arabera, XX. mendeko lehen herenean, ura araztearen ondorioz heriotza-tasa erdira murriztu zen Estatu Batuetan. Britainia Handian, saneamendua hedatzean, bizi-itxaropena 15 urte luzatu zen 1880. urtearen ondorengo lau hamarkadetan.

Saneamenduaren eta uraren arteko lotura

Herialde aberatsetan, ura iturria ireki orduko dago eskuragarri. Saneamendu pribatua eta higienikoa segurutzat jotzen da. Ur-eskasiari buruzko kezka ager daiteke, noiz edo noiz, zenbait herrialdetan, baina kezka hori dagokion tokian jarri behar da. Herialde aberatsetan ez da haurrik hiltzen basokada bat ur garbi falta zaielako. Neskatalak ez dira eskolarik gabe uzten, ur bila urrutiko erreka eta ibaietara joan daitezten. Eta uraren bidez transmititzen diren gaixotasun infekziosoak historia-liburuetan daude, ez ospitaletako sailetan eta gorputegietan.

Herialde pobreekiko alde harrigarria da. Gabeziaren banaketa oso desorekatuta dago eskualdeetan, eta munduko ur-krisiaren errealtatearen datuak oso adierazgarriak dira. Gara-

pen-bidean dauden herrialdeetako 1.100 milioi lagunek ez dute gutxieneko ur garbi kantitatea eskuratzeko aukerarik. Estaldura-indize txikiak Sahara azpiko Afrikak ditu, baina Asian bizi da ur garbirik gabeko jende gehiena. Saneamendueza are zabalduago dago. 2.600 milioi lagunek —garapen-bidean dauden herrialdeetako biztanleriaren erdia— ez dute oinarritzko saneamendua izateko aukerarik. Eta sistemaz datu guztien berri izaten ez denez, kopuru horiek ez dute arazoaren benetako neurria adierazten.

Ura eta saneamendua “eskura ez izatea” eufemismo fina da gabezia-mota horri deitzeko, bizia mehatxatu, aukerak suntsitu eta giza duintasuna suntsitzen baitu. Jendeak, ura eskura ez duelako, gizaki- eta animalia-gorotzez kutsatutako edo animaliek erabilitako ubide, ibai eta aintziretara jotzen du. Era berean, giza beharizan oinarritzkoenak ere asetzeko adina ur ez izatea dakar horrek.

Oinarritzko beharizanak desberdinak izan daitezke, baina gutxieneko kopurua egunean 20 litro ingurukoa da. Ur garbia eskura ez duten 1.100 milioi lagunetatik gehienek 5 litro inguru erabiltzen dute egunean —herialde aberatsetan, komuneko kateari tira egitean erabiltzen den kantitatearen hamarrena—. European, jendeak 200 litro baino gehiago erabiltzen du, batez beste; Estatu Batuetan, 400 litrotik gora. Europar batek komuneko kateari tira egiten diotenean edo estatubatuar bat dutxatzen denean, ur gehiago erabiltzen da garapen-bidean dauden herrialdeetako auzune pobreetako eta inguru lehorretako ehunka milioi lagunek eskuragarri dutena baino. Herialde aberatsetan tantaka gelditutako iturriek ur gehiago galtzen dute, 1.000 milioi lagunek egunero eskura dutena baino.

Saneamendurik ez duen jendeak zelaietan, ubideetan eta kuboetan hustu behar izaten du sabela. Nairobiko (Kenya) Kibera auzune pobreako “komun hegalariek” erakusten dute zer dakarren saneamendurik ez egoteak. Komunik ez dagoenez, jendeak plastikozko zorroetan husten du sabela, eta gero kalera jaurtitzen dituzte zorro horiek. Komunik ez egoteak arazo bereziki larriak sortzen dizkie emakumei eta neskatilei, osasun publikoaren eta segurtasunaren aldetik. Saneamenduan, urarekin gertatzen zen legez, genero-desberdintasunaren inguruan egituratzen da desabantailaren giza kostua.

Ura eta saneamendua eskuragarri izatean lortzen diren emaitzek indartu egiten dituzte giza garapeneko aspaldiko irakaspen batzuk. Izan ere, batez beste, bi arlo horietako estaldura-indizeak igo egiten dira errentarekin batera: aberastasunak gora egitearekin bat, ura eta saneamendua eskuratzeko aukera ere hobetu egiten da. Baina aldaera asko daude batez bestekoaren baitan. Herrialde batzuek —hala nola, Bangladeshek eta Thaiandiak saneamenduan, eta Sri Lankak eta Vietnamek ur-kontuetan—, beren errenta zer-nolakoa den kontuan hartuta, espero zitekeena baino askoz ere lan hobea egiten dute. Beste batzuek —esaterako, Indiak eta Mexikok sanitatean— askoz ere lan okerragoa egiten dute. Irakaspena: errentak eragina du, baina politika publikoak erabakitzen du nola bihurtu errenta hori giza garapen.


Giza garapeneko kostu ikaragarriak

Uraren eta saneamenduaren gabeziak eragin biderkatzaileak izaten ditu. Besteak beste, giza garapeneko kostu hauek eragiten ditu:


- 1,8 milioi haur hiltzen dira urtean beharokoaren ondorioz —4.900 hildako egunean, edo Londres eta New Yorkeko bost urtetik beharoko biztanleria adina— (2. irudia). Ur zikina eta saneamendu eskasa dira munduko haur-heriotzen bigarren kausa nagusia. 2004an, beharokoaz hildakoak sei bat aldiz gehiago izan ziren, 1990eko hamarkadan gatazka armatuen ondorioz batez beste hildakoak baino.
- Urtean 443 milioi eskola-egun galtzen dira, urarekin lotutako gaixotasunak direla-eta.
- Garapen-bidean dauden herrialdeetako biztanleen ia erdiak izan ditu noizbait osasun-arazoak, ur- eta saneamendu-urritasunak eraginda.
- Milioika emakumek orduak eta orduak ematen dituzte ura hartzen.
- Desabantailako bizi-zikloek milioika lagun kaltetu dituzte, gaixotasunak izan dituztelako eta txikitan hezkuntza-aukerak galtzeak handitan pobre izatea ekarri dielako.

Giza kostu horiez gain, ur- eta saneamendu-urritasunarekin lotutako galera ekonomiko handiak daude. Kostu horiek neurtzea zaila da, berez. Alabaina, aurtengo *Giza Garapenari buruzko Txostenerako* eginiko ikerketa berriak munduko zenbait herrialde pobreenek galera ikaragarriak izan dituztela nabarmendu du. Ikerketak osasun-

2. irudia Beherakoa: haur-heriotzen bigarren eragile nagusia




3. irudia Ur garbiak eta komunek haur-heriotzak murrizten dituzte



4. irudia

Pobreek jasaten dute ur- eta saneamendu-urritasun gehien



gastuekin, produktibitate-galerekin eta eskulandenbora galtzarekin lotutako kostuak bildu ditu.

Galera handienak herrialde pobreenetako baztuetan daude. Sahara azpiko Afrikak BPGaren % 5 inguru, edo 28.400 milioi dolar, galtzen du urtean; kopuru horrek gaintu egiten ditu 2003an eskualdeari emandako laguntzak eta zor-arintzeak. Hala ere, funtsezko alderdi bati dagokionez, kostu ekonomikoaren gutzitzko horrek ez du behar bezala islatzen ur- eta saneamendu-urritasunaren benetako eragina. Izan ere, galera gehienak pobrezia-aren mailatik behera dauden etxeetan pairatzen dituzte, eta horrek atzeratu egiten du jende txiroak pobreziatik ateratzeko egiten dituen ahaleginak.

Eraginkortasuna edonola neurtuta ere, ur eta saneamenduan inbertitzeak etekin handiak sortzeko ahalmena dauka. Arlo horretan gastatutako dolar bakoitzak, batez beste, beste 8\$ sortzen ditu, ekidindako kostuak eta irabazitako produktibitatea aintzat hartuta. Irabazi finko horretaz gain, ura eta saneamendua eskuratzeko aurrerapenek eragin dinamiko iraunkorak sortuko dituzte, eraginkortasun ekonomikoa suspertzeko.

Ur- eta saneamendu-urritasunak kalte ikaragarriak eragiten ditu: giza sufrimendu izugarria, galera ekonomiko handiak, eta muturreko pobrezia. Baina urritasun hori arinduz, aurrerapen handiak egin daitezke giza garapenerako. Ura eta saneamendua dira gobernuek eskura duten sendagai prebentibo ahaltsuenetakoa, gaixotasun infekziosoak gutxitzeko. Beherakoaren eta beste gaixotasun hilgarri batzuen aurka inbertitzea elgorriaren aurka immunizatzea bezalaxe da: bizia salbatzen du. Txostenerako ikerketak erakutsi duenez, ur segurua eskura izateak % 20 baino gehiago murriztu du haurren heriotzatasua Kamerunen eta Ugandan. Egipton eta Perun, etxean katedun komuna izateak % 30 baino gehiago murriztu du haurrak hiltzeko arriskua (3. irudia).

Krisia, pobreentzat batez ere

Ur- eta saneamendu-krisia, batez ere, pobreen krisia da. Ur garbirik eskura ez duten hiru lagunetik bi egunean 2 dolar baino gutxiagorekin bizi dira, eta hirutik bat dolar 1 baino gutxiagorekin. Saneamendurik gabeko 660 milioi lagun baino gehiago bizi dira egunean 2 dolar baino gutxiagorekin, eta 385 milioi baino gehiago eguneko dolar 1 baino gutxiagorekin (4. irudia).

Errealitate horrek ondorio garrantzitsuak ditu politika publikoan. Garbi uzten du zerbitzu horiek gabeko biztanleek ahalmen mugatua dutela ura eskuratzeko bide hobeak diru pribatuaz finantzatzeko. Sektore pribatuak izan dezake zereginik ura eramateko lanetan, baina finantzaketa publikoak dauka ur- eta saneamendu-urritasuna gainditzeko gakoa.

Herrialde askotan, ura eta saneamendua egoki banatuta egotea aberastasun-banaketa-aren ispilu da. Batez beste, biztanlearen % 20 aberetsenetik % 85ek du etxean kanalizatutako urrik; % 20 pobreenetik, berriz, % 25ek bakarrik (5. irudia). Berdintasun-eza ura eskuratzeko aukerak baino haragokoa da. Garapen-bidean dauden herrialde askotan, printzipio gaizto bati jarraitzen diote: jende pobreenak, eskura ur gutxiago eta ur garbi gutxiago izateaz gain, munduko prezio garestienetakoa ordaintzen du:

- Jakartan (Indonesia), Manilan (Filipinak) eta Nairobini (Kenya), auzune pobreetan bizi den jendeak 5-10 aldiz gehiago ordaintzen du ur-unitate bakoitzeko, hiri horietan errenta altuko guneeetan bizi direnek baino —eta Londresen edo New Yorken kontsumitzaileek ordaintzen dutena baino— (6. irudia).
- Errenta altuko etxeetan etxe txiroetan baino askoz ur gehiago erabiltzen da. Dar es Salam (Tanzania) eta Mumbai-n (India), zerbitzuan sartutako errenta altuko auzoetan, uraren per capita erabilera 15 bider handiagoa da auzune pobreetan baino.
- Urari prezio bidegabea jartzeak ondorio krudelak eragiten ditu familien pobrezian. El Salvadorreko Jamaikako eta Nikaraguako etxeen % 20 pobreenak, batez beste, etxeko errentaren % 10 gastatzen du uretan. Erresuma Batuan, berriz, % 3ko atalera iristean, esaten da bolada gogorra ari direla pasatzen.

Milurtekoko Garapen Helburuak lortzeko aurreikuspena

Milurtekoko Garapen Helburuak ez dira gobernuek ezarritako lehenengo asmo handiko helburuak. “Ura eta saneamendua denontzat” hamar urteren buruan; helburu hori 1970eko eta 1980ko hamarkadetako goi-biltzarretan onartu ziren helburu gogorren artean zegoen. Agin-

dutakoa baino gutxiago egin zen, ordea. Aldatuko al da hori oraingoan?



Gainera, batik bat Txinan eta Indian izandako aurrerapen handiaren ondorioz, mundua uraren helburua lortu nahian dabil, baina bi eskualde bakarrik dabilta saneamenduaren helburuaren atzetik (Ekialdeko Asia eta Latinoamerika). Egoera orokorrak eskualdeetako eta nazioetako gorabeherak ezkututzen ditu.

- Martxa honetan, Sahara azpiko Afrikak uraren helburua 2040an lortuko du, eta saneamenduarena 2076an (7. irudia). Hegoaldeko Asiari 4 urteko bidea gelditzen zaio saneamenduarena lortzeko, eta Arabiar Estatuei 27 urte urarena lortzeko.
- Munduan 234 milioi lagunek ez dute lortuko uraren helburua, eta 55 herrialde erdi bidean geldituko dira.
- Saneamenduaren helburua ez dute beteko 430 milioi lagunek, eta 74 herrialde erdi bidean geldituko dira.
- Sahara azpiko Afrikan, aurreko hamarkadan, urtean 10 milioi pertsonarentzako ur-konexioak egin zituzten, eta, beraz, uraren helburua lortzeko egunean jar dadin, hurrengo hamarkadan urtean 23 milioi pertsonarentzako konexioak egin beharko ditu. Hegoaldeko Asiaren saneamenduhorniduraren tasak ere igo egin beharko du: urtean 25 milioi lagunentzat izatetik urtean 43 milioi lagunentzat izatera

Milurtekoko Garapen Helburuak gutxieneko atalasetzat hartu beharko lirateke, ez gehieneko mugatzat. Erdietsiz gero ere, defizit global handia egongo da oraindik. Egungo mundua nondik nora dabilen ikusita, esan daiteke ez dela lortuko Milurtekoko Garapen Helburuek finkatutako gutxienekoa, eta hori oso kezagarria da.

Egungo joeren eta helburuen arteko aldea estutuz

Egoera hori aldatzea, zuzen jokatzea ez ezik, zentzuz jokatzea ere izango litzateke. Zuzen jokatzea litzateke, ura eta saneamendua funtsezko giza eskubideak direlako, eta gobernuek ez luketelako beste alde batera begiratu behar, giza eskubideak urratzen direnean —gaur egun, hainbatetan—, ez eta horren ondorioz giza ahalmenak galtzen di-



renean ere. Eta zentzuz jokatzea litzateke, ura eta saneamendua eskura izateak jendeari pobrezia-egoeratik irteteko eta herrialdeko oparotasunean parte hartzeko bide emango liokeelako.

Zaila da ur eta saneamendua hobetzeak giza garapenean zer lorpen eragin ditzakeen kalkulatzeko. Baina kalkulu baikorren arabera, irabaziek erraz gainditzen dituzte kostuak. Garapen iraunkorra kontuan hartuta eta kostu txikieneko

teknologia erabilia, Milurtekoko Garapen Helburua lortzeko kostu gehigarriak urtean 10.000 milioi dolarrekoak izango lirateke. Ur eta saneamendurako Milurtekoko Garapen Helburua lortzeko, alde handia dago egungo joeren eta aurreikusitako joeren artean, eta joera horiek berdinduko balira, ondorio hauek lortuko lirateke:

- 203.000 haur gutxiago hilko lirateke 2015ean, eta milioi 1 haur baino gehiagori bizia salbatuko litzaike hurrengo hamarkadan.
- 272 milioi eskola-egun berreskuratuko liraterke, beherako arinagoak izateagatik soilik.
- Guztira, 38.000 milioi dolarreko irabazi ekonomikoak izango liraterke urtean. Sahara azpiko Afrikan, irabaziak 15.000 milioi dolarrekoak liraterke, 2003an jasotako laguntzen % 60. Hegoaldeko Asian, berriz, 6.000 milioi dolarrekoak.

Munduak egin al diezaieke aurre urrez eta saneamenduz hornitzeko aurrerapen bizkortuen kostuei? Egokiagoa da beste hau galdetzea: munduak egin al diezaieke aurre inbertsiorik ez egiteari?

Milurtekoko Garapen Helbururako 10.000 milioi gastatzeak garestia dirudi, baina testuinguruan jarri behar da. Bost egunetako munduko gastu militarrek baino gutxiago da, eta herrialde aberatsek urtean ur mineraletan gastatzen dutena baino gutxiago ere bai. Ordaindu beharreko prezioa merkea da era horretako inbertsio baterako; izan ere, milioika gazteren biziak salbatuko liraterke, alferrik galtzen diren hezkuntza-aukeren atea ireki, jendeari osasuna osten dioten gaixotasunak desagerrarazi, eta oparotasuna bultzatzeko etekin ekonomikoa sortu.

Arrakasta izateko lau oinarri

Goi-mailako nazioarteko biltzarrek, adorea ematen duten adierazpenek eta helburu ausartek ur garbia eta oinarrizko saneamendua ekarriko balute, munduko krisia aspaldi konponduta egongo litzateke. 1990eko hamarkadaren erdialdetik hona asko ugaritu dira urari buruzko nazioarteko biltzarrak, bai eta nazioarteko goi-mailako elkarteak ere. Era berean, Nazio Batuen 23 agentzia ari dira uraren eta saneamenduaren gaia lantzen.

Biltzar asko, jarduera asko, baina hobekuntza gutxi. Joan den hamarkadari begiratuz gero, zaila

da ondorio hau ez ateratzea: uraren eta saneamenduaren gaiari buruz asko hitz egin da, baina ekintza gutxi egin dira. Datorren hamarkadan, nazioarteko kanpaina adostua egin beharko litzateke, nazioen estrategiak gauzatzen hasita, baina mundu osorako ekintza-plana ere sartuta. Ez dago erreforma nola egin behar den jakiteko arau jakirik, baina lau oinarri ezinbestekoak dira arrakasta lortzeko:


- *Ura giza eskubide bihurtzea, benetan.* Gobernu orok joan behar luke zehaztasunik gabeko konstituzio-printzipioak baino harago, eskuordetze-legedian ura giza eskubidetzat ezartzeko. Benetako esanahia izan dezan, giza eskubideak ura seguru, eskuragarri eta prezio onargarrian izatea ekarri behar du berekin. Jendeari eskubidez dagokiona desberdina izango da, herrialde eta etxeen egoera zein den. Baina herritar bakoitzak, gutxienez, eguneko 20 litro ur garbi izan behar luke, eta ordaintzeko txiroegi direnek, dohainik. Helburua lortzeko bidean aurrera egiteko, erreferentzia-puntu garbiak jarri behar dira, eta herrialdeko zein tokiko gobernuak eta ur-hornitzaileak izango dira aurrerapenaren erantzule. Ura banatzerakoan hornitzaile pribatuek beren zeregina duten arren, gobernuen eginkizuna da ura izateko giza eskubidea hedatzea.
- *Ur eta saneamendurako estrategia nazionalak antolatzea.* Gobernu guztiek prestatu behar lituzkete plan nazionalak ur- eta saneamenduarloa azkarrago hobetzeko, asmo handiko helburuak ezarriz (finantzatuta) eta desorekak gainditzeko estrategia garbiak abian jarritz. Ura eta, are gehiago, saneamendua pobrezia murrizteko planen lehengusu pobreak dira. Finantzaketa-urritasun kronikoa dute; normalean, gastu publikoa BPGaren % 0,5 baino gutxiago izaten da. Biziak salbatzen dituzten ur eta saneamenduko inbertsioak txiki gertatzen dira gastu militarren aldean. Etiopian, gai militarretarako aurrekontua 10 aldiz handiagoa da ur eta saneamendurako aurrekontua baino; Pakistanen, 47 aldiz handiagoa (8. irudia). Gobernuak gutxienez BGParen % 1 gorde behar lukete ur eta saneamenduan gastatzeko. Berdintasun-ezari aurre egiteko finantza-estrategien betekizuna bete beharko da —transferentzia fiskalak, zeharkako la-

guntzak eta beste neurri batzuk barne—, ura eta saneamendua pobreek erosteko moduko prezioan jartze aldera. Estrategia nazionalak erreferentzia-puntuak izan behar lituzkete berdintasuna areagotzeko; besteak beste, hauek:

- *Milurtekoko Garapen Helburuak.* Ura eta saneamendua eskura ez dituen jendearen indizea 2015erako erdira jaistearren helburua osatzeko, aberats eta pobreen arteko estaldura-indizearen aldea erdira murrizteko politikak egin beharko lituzkete.
- *Pobrezia murrizteko strategiari buruzko agiriak.* Urari eta saneamenduari funtsezko lehentasuna eman beharko litzaieke. Helburu zehatzak adierazteaz gain, epe ertainera finantzatu beharko lirarteke.
- *Ur-hornitzaileak.* Zerbitzu publiko nahiz pribatuek eta udal-erakundeek berdintasun-erreferentzia argiak izan beharko lituzkete, eta ez betetzeagatiko isunak ere bai.
- *Herrialdeetako planak nazioarteko laguntzaz babestea.* Herrialde pobre askorentzat, garapenerako laguntza funtsezkoa da. Ura eta saneamendua hobetzeko, aurretiaz inbertsio handiak egin behar dira, epe luzera ordaintzekoak. Errenta publikoen murriztapenek hainbat herrialde pobreen finantza-ahalmena mugatzen dute, eta kostua berreskuratzeko ahalmena, berriz, pobrezia-maila handiak mugatzen du. Herrialde emaila gehienek onartzen dute ura eta saneamendua garrantzi handikoak direla. Hala ere, garatzeko laguntza benetan urritu egin da azken hamarkada honetan, eta herrialde emaila gutxiak daukate sektore hori lehentasuntzat: sektoreak garapenerako laguntzaren % 5 baino gutxiago du. Laguntzak ia bikoiztu egin beharko dira —hau da, urtean 3.600-4.000 milioi dolar gehiago eman— Milurtekoko Garapen Helburua eskuragarria izateko. Finantzaketa-estrategia berritzaileak, International Finance Facility-ren barruan emandakoak kasu, behar-beharrezkoak dira aurretiazko finantzaketa lortzeko eta, horren bidez, Milurtekoko Garapen Helburuan atzera ez geratzeko (ikus Gordon Brown eta Ngozi Okonjo-Iweala-ren artikulua

7. irudia

Zenbait eskualdetan, atzeratuta dabilta ur eta saneamendua arloko Milurtekoko Garapen helburua lortzeko.



berezia). Emailak herrialdeen strategiak eta herrialdeetara bideratutakoak babestu beharko lituzkete, eta laguntza bermatu, epe luzerako. Tokiko kapital-merkatuetan dirua igotze aldera, tokiko gobernuek eta udal-zerbitzuek eginiko ahaleginak babesteko aukera ere badago.

- *Mundu osorako ekintza-plana garatzea.* Ur eta saneamenduan hobekuntzak azkarrago egiteko nazioarteko ahaleginak zatituak eta alferrikakoak izan dira, eta goi-mailako biltzar ugari egin dira, baina benetako ekintzarik ez. GIB/HIESari eta hezkuntzari nazioartean emandako erantzun indartsuarekin alderatuz, ura eta saneamendua ez dira nabarmendu munduaren garapen-agendan. G8 taldeak, duela bi urte mundu osorako ekintza-plana hitzeman bazuen ere, ez du jarri ura eta saneamendua lehentasunen artean. Mundu osorako ekintza-plana garatzeak laguntzak finantzatzea bultzatuko luke, garapen-bidean dauden herrialdeetako gobernuei tokiko ka-

Japonian, Europar Batasunean nahiz Estatu Batuetan, herrialde garatuak jendeak segurutzat jotzen du ur garbia eta oinarriko saneamendua. Baina munduan, jende gehiegiri ukatzen zaio funtsezko giza eskubide horiek eskura izatea. Txosten honetan informazio asko bildu dugu ur- eta saneamendu-krisiak izango lituzkeen kostu sozial eta ekonomikoei buruz.

Ura eta saneamendua, giza bizitzarako ezinbestekoak ez ezik, edozein herrialderen garapenerako oinarriak ere badira. Horregatik, zortzi Milurtekoko Garapen Helburuetako batek xede zehatza du; alegia, edateko urik eta oinarriko saneamendurik ez duten pertsonen ehunekoia 2015. urterako erdira murriztea.

Ur garbirik eta saneamendurik ezak neurrigabe kaltetzen ditu emakumeak eta neskek, beraiek arduratzen baitira, normalean, familiarentzat ura ekartzeaz. Izan ere, eskolara joateko adina duten neskek ur-iturri hurbilenera joaten ematen duten denboran —orduak, batzuetan— hezkuntza-orduak galtzen dituzte, eta horrek ukatu egiten die lana lortzeko eta beraien nahiz familien bizi-baldintzak hobetzeko aukera. Badaude ur garbia edo saneamendua eskuratzeko biderik ez duten ikastetxeak ere, giza garapenaren eta Milurtekoko Garapen Helburuen arteko loturaren erakusle: ezin da hezkuntza-sistema eraginkorrik eratu, umeak etengabe gaixo badaude edo eskolara joaten ez badira. Eta ezin da guztientzako hezkuntza ona sortu, baldin eta neskek etxean geratzen badira, eskolan mutilentzat eta nesKentzat komunak bereizirik ez daudelako.

Egun, ur garbiaren, osasun hobearren eta oparotasun handiagoaren arteko lotura ongi ulertzen da. Nahikoa ezagutza, teknologia eta finantza-baliabide ditugu, ur garbia eta saneamendua denontzat egia bihurtzeko. Orain, politikoen jarduteko borondateak eta baliabide horiek bat egitea lortu behar dugu.

Herrialdeen baitan, ur- eta saneamendu-sistema eraginkorrek ezartzeko azpiegiturak behar dira —ur-hodiak, ura ponpaz ateratzeko guneak, estolderia lanak...—. Inbertsio handiak behar dira, herrialde pobreenek egin ditzaketena baino askoz handiagoak. Are gehiago: aurreziak inbertsio izugarriak egin behar izateaz gain, gehiago gastatu behar da epe luzeagorako mantentze-lanetan. Garapen-bidean dauden herrialdeetan, kontuan hartuta zenbat jende moldatzen den ur eta saneamendurik gabe eta egunean dolar 1 baino gutxiagorekin, aurreziak kostu horiei ezin zaie erabilizaille-kuoten bidez aurre egin.

2005ean, herrialde garatuak gobernuek garapenerako laguntzak areagotuko zituztela agindu zuten. Europar Batasunak, 2015erako, laguntzak bere errentaren % 0,7ra igotzeko konpromisoa hartu du. G8 taldeak 2010erako Afrikarako laguntza bikoizteko konpromisoa hartu du. Hori hitzeman zuenean, G8ak aitortu zuen garapen-bidean dauden herrialdeetako biztanleek ura eta saneamendua izatea zela laguntza horren xedeetako bat. Aitzitik, herrialde emaleen aurrekontuetako laguntzen ohiko igoerak ez dira nahikoa izango beste baliabide batzuk emateko eta finantutako laguntza-helburuak betetzeko. Milurtekoko Garapen Helburuak erdiesteko, ezinbestekoa da finantzaketa, eta finantzaketa lortzeko eta aurrera eramateko, finantza-mekanismo berritzaileak behar dira.

Argi esanda, mundua ezin da finantzaketa handitzearen zain geratu, ur- eta saneamendu-krisiari aurre egin gabe. Krisi hori haurrak hil-

tzen eta garapena geldiarazten ari da gaur egun; beraz, lanari ekin behar diogu, orain. Hori dela-eta, finantzaketa-mekanismo berritzaile batzuk aztertu eta ezarri dira, garapenerako aurreziak finantzaketa mobilizatze aldera. International Finance Facility (IFF) da horren adibide bat.

IFFk nazioarteko kapital-merkatuetatik baliabideak mobilizatzen ditu, eta horretarako, epe luzearako obligazioak ateratzen ditu, herrialde emaleek 20-30 urtean ordain ditzaten. Baliabideen masa kritikoa berehalaxe jar daiteke eskuragarri garapenean inbertitzeko, eta epe luzean ordaintzen dira herrialde garatuak laguntza-kuoten bidez.

Aurrez aurreko printzipioak jada aplikatu dira Immunizaziorako IFFn. Berehala, 4.000 milioi dolar gehiago inbertitu dira prebeni daitezkeen gaixotasunen aurkako txertoa jartzeko, eta horrek 5 milioi lagun salbaturuko die bizia hemendik 2015era, eta beste 5 milioi ondoren.

Printzipio horiek uraren arazorako ere garrantzitsuak izan daitezke. Ur eta saneamenduan egindako aurreziak inbertsioen etekin-indizeak askoz handiagoak lirateke obligazio-merkatuetan mailegatzearen kostuak baino, baita interes-kostuak aintzat hartuta ere. Bai, OMEk kalkulatu duenez, errenta baxuko herrialdeetan, saneamenduan eta higieanean dolar 1 inbertitzeak 8 dolarreko etekina ematen du, batez beste. Hori inbertsio ona da, kontabilitate-sistema guztien arabera.

Ur eta saneamenduan inbertsioak egiteko, kapital-merkatuetatik baliabideak mobilizatzen dira; hori ez da kontu berria. Aurreko mendearen hasieran, herrialde industrialek obligazio-jaulkipenak eta kapital-merkatuak erabili zituzten finantzaketa lortzeko, eta ur- eta saneamendu-azpiegiturretan inbertitzeko. Eta duela oso gutxi, herrialde batzuek, Hegoafrikak kasu, udal-obligazioak jaulki zituzten, inbertsiorako baliabideen masa kritikoa azkar handitzeko.

Jakina, aitortu behar dugu Milurtekoko Garapen Helburuak babesten dituzten laguntza-elkarte berriak bi norabideko itunak direla. Bi aldeek dituzte betebeharrak eta erantzukizunak. Garapen-bidean dauden herrialdeak epaitzean, kontuan hartuko da zer-nolako trebetasuna duten pobreei ur garbia eta saneamendua emateko laguntza-baliabideak modu eraginkor eta garbian erabiltzeko. Baina herrialde horiek eta herritarrek eskubidea dute politika on horiek babesa izango dutela itxaroteko, erronkaren norainokoarekin bat datorren eta bermatutako laguntza-finantzaketaren babesa.

Herrialde garatuak epaitzeko, Milurtekoko Garapen Helburuen aldekoak diren ala ez aintzat hartzeaz gain, helburu horiek lortzeko baliabideak jartzen dituzten ala ez ere hartuko da kontuan. Ur garbia eta oinarriko saneamendua ematen laguntzeak erakutsiko du agindu horiek ez direla bolada batekoak bakarrik, baizik eta gure belaunaldiaren konpromisoa direla.

Gordon Brown

Gordon Brown, diputatua, Ogasun-ministroa, Erresuma Batua

Nguzi Okonjo-Iweala

Nguzi Okonjo-Iweala, Finantza-ministro ohia, Nigeria

pital-merkatuez baliatzen lagunduko lieke eta ahalmena garatzeari garrantzia emango lioke. Hori guztia puntu garrantzitsua litzateke ur eta saneamenduan eginiko ahalegin politikoe-tarako eta laguntza publikorako.

Bizitzeko ura ematea

Nazio Batuen Ekonomia, Gizarte eta Kul-tura Eskubideen Batzordearen hitzetan, “ura giza eskubidetzat aitortzeak esan nahi du denok dugula eskubidea etxean eta nor-berarentzat ur nahikoa, segurua, onargarria, eskuragarria eta prezio onargarrian izateko eskubidea”. Bost bereizgarri nagusi horiek dira ur-segurtasunaren oinarriak. Alabaina, alde guztietatik urratzen dira.

Pobreek ur garbia eskuratzeko aukera gutxiago dituzte, baina gehiago ordaintzen dute; zergatik? Hiriguneetan, ur-iturri merkeena eta fidagarriena sareaz arduratzen den zerbitzua izan ohi da. Etxe pobreak, normalean, ez dira egoten sarean sartuta, eta zaharkitutako hainbat iturritatik lortu behar izaten dute ura. Dar es Salaam-en (Tanzania) edo Ouagadougou-n (Burkina Faso) etxeen % 30 baino gutxiago dago sarean sartuta.

Etxeak sarean sartuta ez daudenean, aukera gutxi dituzte. Edo tratatu gabeko uren iturrietatik nahiz iturri publikoetatik hartzen dute ura, edo erosi egiten diete bitartekoei; besteak beste, behin-behineko iturrien agenteei, ur-saltzaileei eta zisterna-kamioietako langileei. Ura pribatizatzeari buruzko eztabaidan, ahaztu egin zaigu pobreen gehiengo handia ari dela jada ura merkatu pribatuetan erosten. Merkatu horietako urak era guztietako kalitatea izaten du, eta garestia izaten da.


Garestiako pobreenzat

Zerbitzuetik urrun egoteak garestitu egiten du ura. Ura bitartekoen eskuetatik igarotzen denez, eta bakoitzak garraio- eta merkaturatze-kostuak gehitzen dizkionez, garestitu egiten da. Maiz, auzune pobreetan bizi den jende behartsuak hiri berean bizi diren aberatsek baino 5-10 aldiz gehiago ordaintzen du ur litroa.

Horrez gain, zerbitzuei prezioa jartzeko politiken arazoa ere kontuan hartu behar da. Zerbitzuek gehienak goranzko multzokako tarifa-sistema


8. irudia Aurrekontu askotan, urak ez du lehenetsun handirik

Gobernuek gastu militarretan, osasunean eta ur eta saneamenduan gastatutakoa (BPGaren %)



Iturria: Etiopia, Kenya eta Hegoafrikarako, WSP 2003; Yemenerako, Yemen 2002; Pakistanerako, Pakistan 2004; Indiarako, Nayyar eta Singh 2006; Ugandarako, Slaymaker eta Newborne 2004; Mexikorako, INEGI 2006a; Zambiarako, Zambia 2004b.

9. irudia Zerbitzuek hornitzen dute ur merkeenaz



Iturria: Datuei buruzko azterketa batean oinarritua (azterketak 47 herrialde eta 93 leku hartzen zituen).
Iturria: Kariuki eta Schwartz, 2005.

ezartzen ari dira. Helburua berdintasuna eta eraginkortasuna bateratzea da, eta horretarako, erabilitako uraren bolumenaren arabera garestitzen da prezioa. Praktikan, ordea, horren ondorioz, etxe pobreenak goragoko tarifa-multzoetan sartzen dira. Arrazoia: etxe behartsuetara ura eramaten duten bitartekoei handizka erosten dute ura, preziorik garestiengan (9. irudia). Dakarren,

Politikak ebaluatzeko irizpidetzat ez litzateke begiratu behar politika horiek publikoak ala pribatuak diren, baizik eta pobreenzat emaitzak ematen dituzten ala ez

behin-behineko iturriak erabiltzen dituzten etxe txiroek hiru bider gehiago ordaintzen dute zerbitzura konektatutako etxeek baino.

Ur-zerbitzuko prezioak askoz merkeagoak baldin badira, zergatik ez dira etxe pobreak ere zerbitzura konektatzen? Sarritan, konektatzeko kuota ordaintzeko adina ez dutelako; izan ere, herrialde pobreenetan ere 100\$ baino gehiagokoa izan daiteke. Manilan, zerbitzura konektatzearen kostua hiru hilabeteko errenta da, etxeen % 20 pobreenarentzat; Kenyan, berriz, sei hilabetekoa. Etxea non dagoen ere oztopoa izan daiteke. Hiri askotan, jabetza-agiririk gabeko etxeak ez dituzte zerbitzura konektatzen, eta horrek bazterrean uzten ditu etxe pobreenak.

Nekazari-etxeek bestelako arazoak dituzte. Nekazari-komunitateek, sare formaletatik kanpo daudenez, beren ur-sistemak kudeatzen dituzte, gobernuko agentziek zerbitzua ematen laguntzen badute ere. Agentzia askok “agindu eta kontrolatu” ereduari jarraituz jardun dute, eta maiz, kokapen batzuk teknologia desegokiz hornitu dituzte, askorik kontsultatu gabe. Horren ondorioz, finantzaketa-urria izan da, eta estaldura kaskarra; eta nekazari-gunetako emakumeek jasaten dituzte horren kostuak, haiek joan behar izaten baitute urrutiko iturrietara ur bila.

Hornitzaile publikoen eginkizun garrantzitsua


Azken urteotan, ura izateko giza eskubidearen gaineko nazioarteko eztabaidan, muturreko ikuspegiak nagusitu dira sektore pribatuei eta publikoei dagozkien eginkizunei buruz. Gai garrantzitsuak azaleratu dira, baina elkarrizketak jendea berotu du, ezer argitu baino gehiago.

Pribatizatze-programa batzuek emaitza onak izan dituzte. Baina, oro har, ez dago pozteko arrazoirik. Hainbat herrialdetan (Argentina, Bolivia, Filipinak, Estatu Batuak...), sektore pribatua “formula magikoa” zela uste zuten, denontzako ura lortzeko aurrerapenak bizkortzera begira, berdintasuna eta eraginkortasuna lortzeko. Baina uste hori ustela dela frogatu da. Uraren eskubidearen arloan iraganean eginiko akats horiek sektore pribatuak zereginik ez duela frogatzen ez badute ere, agerian jarri dute elkarte publiko nahiz pribatuetan

berdintasunerako erantzukizun, araudi eta arreta gehiago behar dela.

Estaldura-indize txikiko herrialdeetan, uraren hornikuntzako bi alderdi zehatzek sektore pribatuaz gehiegi ez fidatzeko ohartarazten dute. Lehenik eta behin, uraren sektoreak monopolio naturalaren ezaugarri asko ditu. Prezioak jartzeko eta inbertitzeko arauen bidez interes publikoa babesteko ahalmen arautzaile sendorik ezean, gehiegikeria monopolista egoteko arriskua dago. Bigarrenik, zerbitzurik gabeko biztanleen artean, pobrezia-maila handiak dituzten herrialdeetan, ura jende gehiagok eskura izateko, finantzaketa publikoa behar da, ur-hornitzailea publikoa ala pribatua izan.

Pribatizatzeari buruzko eztabaidak batzuetan desbideratu egin du arreta premiazko gai batetik: zerbitzu publikoaren erreformatik, alegia. Hornitzaile publikoek kontrolatzen dute ur-hornikuntza, eta sareetatik eramaten den



uraren % 90 baino gehiagoz arduratzen dira. Gobernuaren zerbitzu askok huts egin diete pobreei, kudeatzean eraginkorrak eta arduratsuak izan ez direlako, eta finantzatzean eta prezioa jartzean berdintasunik izan ez dutelako. Hala ere, zerbitzu publiko batzuek —Brasileko Porto Alegrek atentzioa ematen du— lortu dute ura denek ordaintzeko eta eskuratzeko moduan jartzea.

Orain, benetako aukerak daude, hutsegiteetatik ikasi eta lorpenak egiteko. Politikak ebaluatzean, pobreentzat emaitzak ematen dituzten ala ez ebaluatu behar litzateke, eta ez politika horiek publikoak ala pribatuak diren.

Zenbait herrialdek hobekuntza azkarrak egin dituzte ur-hornikuntzan. Kolonbian, Senegalen, Hegoafrikan... estrategia berritzaileak garatu dira, hiri-guneetako etxe pobreetan ura eskura izan dezaten. Nekazaritza-guneetako biztanleria hiriko biztanleriaren atzean geratu da mundu osoan, baina Marokon eta Ugandan, bi herrialde oso desberdinetan, asko aurreratu dute estalduran. Zein dira arrakastaren gakoak?

Zuzendaritza politikoak eta lortzeko moduko helburuek dena aldatzen dute

Txostenean zehar nabarmendu bezala, ez dago konponbiderako arau jakinik. Ingurune batean pobreentzat emaitza onak izan dituzten politikek huts egin dezakete beste ingurune batean. Hala ere, irakaspen argi batzuk agertu dira, ondo irtendako istorioetatik. Lehenengoa, eta agian garrantzitsuena, zuzendaritza politikoak zeresana duela da. Bigarrena, aurrerapenak egiteko, plan nazionalak lortzeko moduko helburuak ezarri behar direla, eta berdintasun-eza gainditzeko hornikuntzak eta estrategiak finantzatu behar direla horretarako.

Horrek ez du esan nahi dirulaguntza orokorrek irizpide kritikorik gabe onartu behar direnik. Txile, Kolonia eta Hegoafrikan, ondo diseinatutako dirulaguntzak iristen dira behar-tsuengana —eta dena aldatzen dute— (10. irudia). Baina, sarritan, zerbitzuei prezio batzuk ezarri berdintasunaren alde egiteko nabarmen diseinatutako dirulaguntzak jartzean, onura handia izaten dute aberatsek, eta zerbitzuetara konektatuta ez dauden etxe pobreek, berriz, oso gutxi. Antzekoa gertatzen da Sahara azpiko Afrikan zerbitzuetara konektatuta dauden

errenta altuko etxe askotan. Haiek jasotzen dituzte onura handienak, eragiketa- eta mantenu-kostuei aurre egiteko behar dena baino askoz ere prezio merkeagoan saltzen dietelako ura.

Berdintasuna eta eraginkortasuna lortzeko, funtsezkoa da arauak ezartzea eta kostuak berreskuratzea

Ur-sareak monopolio naturalak direnez, arauak bermatu egin behar dute hornitzaileek eraginkortasunerako eta berdintasunerako arauak betetzen dituztela —azken buruan, erabiltzailearen interesak babesteko—. Garapen-bidean dauden herrialdeetan, nekez ezarri dira erakunde arautzaile gogorak eta askeak, eta ondorioz, politikak esku hartu du eta erantzukizun falta egon da. Baina egin dira araudia eratzeko eginahalak, zerbitzu-hornitzaileen eta herritarren artean hitz eginez, eta hobekuntza handiak lortu dira, Hyderabad-en (India), kasu.

Kontua zabalduz, garrantzitsua da gobernuen sare formaleko hornitzaileetatik harago ere arauak ezartzea, jende txiroak erabiltzen dituen merkatu informalean, hain zuzen. Arautzeak ez du esan nahi, baina, pobreei zerbitzu ematen dieten hornitzaile pribatuen jarduerak murriztu egin behar direnik. Bai, ordea, hornitzaile horiekin lan egitea, prezioak berdintasunez jartzeko eta uraren kalitaterako arauak errespetatzen dituztela ziurtatzeko.

Kostuak berdintasunez eta modu iraunkorrean berreskuratzea edozein erreforma-programaren parte da. Maiz, arrazoi sendoak egoten dira uraren prezioak maila errealistagoetara igotzeko eta ura eraginkorrago kudeatzeko: herrialde askotan, ur-galerak handiegiak dira, eta zerga-bilketa txikiegia, sistema bideragarria finantzatzeko.

Iraunkortasuna eta berdintasuna desberdinak dira herrialde bakoitzean. Errenta baxuko herrialde askotan, pobreak eta batez besteko errenta baxuak mugatu egiten du kostuak berreskuratzeak aukera. Gastu publikoak eta laguntza funtsezkoak dira. Errenta ertaineko herrialdeek aukera handiagoak dituzte kostuak berdintasunez berreskuratzeak, baldin eta gobernuen etxe pobreetako finantza-zama muga-tzeko mekanismoak finkatzen badituzte.

Errenta ertaineko eta baxuko herrialdeak ere gai dira tokiko kapital-merkatuetara gehiago jotzeko. Nazioarteko babesak eragin handia izan

Erakundeen zatikatzearen, proiektu nazional kaskarraren eta estatus politiko baxuaren eraginak jasaten ditu saneamenduak, urak baino are gehiago

Komunitateek zuzendutako ekimenak garrantzitsuak dira, edota ezinbestekoak. Hala ere, ez dira gobernu-ekintzaren ordezkioak. Eta etxe pobreen finantziazio pribatua ez da finantziario publikoaren eta zerbitzu-hornikuntzaren ordezkioa.

dezake arlo honetan, kreditu-bermeek eta beste mekanismo batzuek interes-tasak eta merkatuko arriskuen pertzepzioak murrizten baituzte.


Proiektu nazional eta global bat eraikitzean (1. kapituluaren aipatua), hauek dira, besteak beste, herrialde bateko ur-eskuragarritasunaren desorekak gainditzeko estrategia nagusiak:

- Desberdintasuna murrizteko helburu argiak zehaztea, herrialdeetako pobrezia murrizteko strategiaren eta Milurtekoko Garapen Helburuaren informazioa lortzeko sistemaren barruan, aberatsen eta pobreen arteko alde handiak kontuan hartuta.
- Ezinbesteko tarifa batzuk ezartzea, oinarritzko beharretarako nahikoa ur emateko, dohainik edo prezio onargarrietan, Hegoafrikan bezala.
- Ur-beharretarako errentaren % 3 baino gehiago etxe batek ere ez duela gastatu beharko ziurtatzea.
- Dirulaguntzetara jotzea etxe pobreetako konexioetarako eta ur-erabilerarako, Txilen eta Kolonbian egin duten eran.
- Behin-behineko iturriz hornitzeko inbertsioak areagotzea, pobreei ur garbia eta erosteko modukoa eskuragarri jartzeko uneko estrategia gisa.
- Jendeari hornitzaileei kontuak eskatzeko ahalmena ematen dion legedia indarrean jartzea.
- Elkarre-kontratu publiko nahiz pribatuetan, berdintasunerako erreferentzia garbiak sartzea, etxe pobreek ura prezio onargarrian izan dezaten eskura.
- Sistema arautzaile eraginkorrek eta politikoki askeak garatzea; sistema horiek ur-zerbitzuaren sarea, hornitzaile informalak... barne hartu behar dituzte.

Saneamendu-urritasun handia desagerraraztea

“Estolda hiriaren kontzientzia da”, idatzi zuen Victor Hugok, *Les Misérables* lanean. XIX. mendeko Paris ari zen deskribatzen, baina egun ere saneamenduaren egoerak ederki adierazten du edozein komunitatetako giza garapena.

Garapen-bidean dagoen munduaren ia erdiak ez du saneamendurik. Are gehiagori falta zaio kalitate oneko saneamendua. Urritasuna oso zabalduta dago. Estaldura-tasak izugarri txikiak dira munduko herrialde pobreenetako batzuetan.



Sahara azpiko Afrikan eta Hegoaldeko Asian, 3 lagunetik batek bakarrik du saneamendua; Etiopian, 7tik batek baino ez. Eta estaldura-tasek gutxietsi egiten dute arazoa, batez ere, errenta altuagoko herrialdeetan. Jakartan eta Manilan, hirigintza azkarrak eta beti gutxiegi inbertitzeak estolderia-sistema zaharrak irentsi dituzte, eta, ondorioz, lurreko komunzuloak ziztu bizian hedatu dira. Gaur egun, zulo horiek lur azpiko ura kutsatzen dute, eta ur hori ibaietara isurtzen da; horrek ur-baliabideak kutsatzen ditu, eta osasun publikoa arriskuan jartzen du.

Saneamendua izateak era askotako onurak dakartza. Herrialdez haraindiko azterketa batzuek erakutsi dute irazkinak desagerraraztearen metodoa erabakigarria dela umeek bizirik iraun dezaten: saneamendua hobetzeak, oro har, herena murrizten du haurren heriotza-tasa. Saneamendua hobetzeak abantailak dakartza, halaber, osasun publikorako, etxeetarako eta duintasunerako —etxeetatik komunitate osora hedatzen dira abantailak—. Nekez ikus daitezke komunak giza garapenerako pizgarri gisa, baina ondo frogatuta dago hala direla.

Zergatik dago horrenbesteko urritasuna?

Aurrerapen ekonomiko eta sozialerako saneamendua horren beharrezkoa bada, zergatik dago horrenbesteko urritasuna, eta zergatik dago mun-

dua Milurtekoko Garapen Helburuak lortzeko bidetik kanpo? Hainbat faktorek eragiten dute.

Lehenengoa zuzendaritza politikoa da, edo, hobeto esanda, horren falta. Saneamenduari buruzko politika publikoak oso garrantzitsuak dira herriaren egoerarako: ekonomiaren kudeaketa, defentsa edo merkataritza bezain garrantzitsuak. Hala ere, saneamendua bigarren edo hirugarren dago lehentasunen ordenan. Saneamenduari urari baino are gehiago eragiten dio erakunde-zatikatzek, bai eta proiektu nazional kaskarrak eta estatus politikoa baxuak ere.

Pobrezia da aurrera egiteko beste oztopo bat: etxe pobreenek, askotan, ez dute izaten saneamendu-instalazioak erosteko ahalmenik (11. irudia). Baina beste faktore batzuek ere geldiarazten dute aurrerapena; familien eskariak eta genero-berdintasunik ezak, kasu. Emakumeek gizonek baino garrantzi handiagoa eman ohi diote saneamenduari, baina emakumeen lehentasunek pisu gutxiago dute, etxeetan aurrekontuen plana egiten denean.

Komunitateen eta gobernuen arteko elkarrekin nola lagun dezakete?

Saneamendu-urritasun izugarriak eta urritasun hori gutxitzeko eginiko aurrerapen motlek argi erakusten dute, batzuen ustez, Milurtekoko Garapen Helburuak ezin direla erdietsi gaur egun. Kezka ulertzekoa da, baina ondorioa okerra da. Saneamenduan aurrerapen azkar asko egin dira, tokiko komunitateek behetik bideratuta batzuetan, eta gobernuak zuzenduta beste batzuetan:

- Indian eta Pakistanen, auzune pobreetako bizilagunen elkarrekin saneamendua milioika jenderi eramaten lagundu dute, komunitateek baliabideak mobilizatzeko duten botereaz baliatuz. Indiako Auzune Pobreetako Bizilagunen Elkarrekin eta Pakistango Orangi Proiektu Pilotuak, beste hainbat komunitate erakunderen artean, erakutsi dute zer lor daitekeen ekintza praktikoaren bitartez.
- Bangladesheko Saneamendu Osorako Kanpaina, komunitatean oinarritutako proiektu izatetik programa nazional izatera pasa da, eta saneamendua eskura jartzen aurrerapen azkarrak egiten ari da. Kanbodiak,


Txinak, Indiak eta Zambiak ere abian jarri dute.

- Kolonbian, Lesothon, Marokon eta Thailandian, gobernu-programek aberastasun-maila guztietako taldeetara zabaldu dute saneamendua. Mendebaldeko Bengalak (India) ere egundoko hobekuntzak egin ditu.
- Brasilen, etxebizitzak estolderia-sisteman sartzeari esker, kostuak murriztu dira eta saneamendua eraman zaio milioika laguni; orain, beste hainbat lekutan ari dira ezartzen.

Istoria arrakastatsu horietako bakoitzak bere jatorria du. Oso politika publiko desberdinak garatu dira, tokiko arazoei aurre egiteko. Baina, betiere, saneamendu-eskaria garatzeari eman zaio garrantzi handiagoa, eskaintzaren arabera goitik beherako hornikuntza-ereduak ezartzei baino. Komunitateen ekimena eta partaidetza funtsezkoak izan dira. Baina funtsezkoa izan da, halaber, gobernu-agentzien eta tokiko komunitateen arteko elkarrekintza.

Tokiko arazoei tokiko konponbideak jartzea izan daiteke aldatzeko abiapuntua. Baina gobernuen eskuetan dago herrialdeko arazoak konpontzeko baldintzak jartzea. Horretarako, finantza-bideak mobilizatu eta baldintza egoikiak sortu behar lituzkete, jendeak merkatuan

Politika akatsek eragin dute eskasia. Uraren kudeaketari dagokionean, finantzatutako kreditua pentsatu gabe eta zentzurik gabe xahutuko balu bezala, munduak nahikoa egin arte erabili du ura.



teknologia egokia erosi ahal izan dezan, neurriko prezioetan. Komunitateek zuzendutako ekimenak garrantzitsuak dira, edota ezinbestekoak. Hala ere, ez dira gobernu-ekintzaren ordezkioak. Eta etxe pobreen finantziario pribatua ez da finantziario publikoaren eta zerbitzu-hornikuntzaren ordezkioa.

Iraizkinen estigma gainditzeko

Saneamenduak arrakasta izan duen istorio horien bidez, irakaspen garrantzitsua jasotzen da: azkar aurrera daiteke. Laguntza izanez gero, herrialde txiroenak ere baliabideak mobilizatzeko gai dira, aldaketa lortzeko. Agian, eragozpenik handiena hitz batean laburbil daiteke: estigma.

Badira zenbait parekotasun deseroso saneamenduaren eta GIB/HIESaren artean. Oraintsu arte, GIB/HIESari buruzko tabu kultural eta sozialek eragotzi egin dute herrialdeek eta nazioarteak erantzun eraginkorrak lantzea, eta horrek egundoko giza kostua ekarri du. Tabu hori indarra galduz joan da; batetik, hondamendia ikaragarria izan delako, baina baita GIB/HIESak gizarteko kide gutxiei eragiten dielako ere, aberastasunaren araberako bereizketarik gabe.

Saneamenduan, tabuak hor jarraitzen du oso-osorik. Hein batean, horregatik ez du gaiak goi-mailako zuzendaritza politikorik, eta horregatik agertzen da hain gutxi hauteskudekanpainen edo eztabaida publikoetan. Estigma hain motel desagertzearren arrazoietakoa bat hau izan da: saneamenduko krisia baztertzaila da GIB/HIESaren krisia baino; pobreentzako krisia da erabat, ez aberatsentzako. Krisiari aurre egiteko, gehiago jabetu behar dugu saneamendu-urritasunak zenbateko kostuak eragiten dituen, eta jende gehiagok onartu behar du saneamendua oinarrizko eskubidea dela.

Saneamenduko politika nagusiaren erronkak hauek dira, besteak beste:

- Herrialdeko eta tokiko erakunde politikoak garatzea, saneamenduak aurrerapen ekonomiko eta sozialerako duen garrantzia adierazteko.
- Komunitateen ekimenak garatzea; horretan gobernuak esku hartu beharko lukete, jardunbide onenak hedatzeko.
- Inbertitzean, garrantzitsua eskaria dela kontuan hartzea. Ikuspegi horretan, zer-

bitzu-hornitzaileek komunitateen premiei erantzuten diete, eta emakumeek ahotsa dute lehentasunak zehaztean.



- Finantza-babesa etxe pobreenetara ere eramatea, saneamendua ordaintzeko moduko aukera dela bermatzeko.

Ur-ekaskia, arriskua eta ahultasuna kudeatzea

XXI. mendearen hasieran, urari buruzko eztabaidek gero eta gehiago erakusten dute arazoaren diagnosi malthusianista. Biztanleria hazi eta ur erabilgarria murriztearen "aritmetika ilunaz" ohartarazi dute hainbatek. Mundua urrik gabe gelditzen ari al da?

Ez modu nabarmenean. Baina uraren segurtasun-erak arriskuan jartzen du gizateriaren zati handi baten (gero eta zati handiagoaren) giza garapena. Lehiak, ingurumenaren mugak eta ura baliabide produktibo moduan eskura izango den ez jakiteak dakarkio, batez ere, uraren segurtasun-eza munduko biztanleriaren zati handi bati.

Mundu osoa hartuta, ur nahikoa eta gehiegi dago gizateriaren behar guztiak asetzeko. Orduan, zergatik dago ur-ekasiaren arazoa? Neurri batean, ura, aberastasuna bezalaxe, oso desberdin dagoelako banatuta herrialdeen artean eta barruan (12. irudia). Ekialde Hurbilean, urrik gabe dauden herrialdeei ez die ezertarako balio Brasileko edo Kanadako erabil dezaketena baino ur gehiago izateak. Eta lehorterako joera duten Brasileko ipar-ekialdeko eremuetako jendea ere ez dio ezer konpontzen herrialdeko ur-erabilgarritasunaren batez bestekoa munduko handienetakoa izateak. Beste arazo bat zera da,



ura baliabide produktibo gisa eskuratu ahal izateko azpiegiturak izan behar direla eskura, eta azpiegiturak ere desorekatuta daudela herrialdeen artean eta barruan.

Ohiko adierazleen arabera, ur-gabezia gero eta handiagoa da. Gaur egun, 43 herrialdeetako 700 milioi lagun bizi dira ur-gabeziaren atalasearen azpitik; hau da, pertsonako 1.700 metro kubo baino gutxiago dute —banaketa-linea arbitrarioa, inondik ere—. 2025erako 3.000 milioi lagunera iritsiko da, Txinan, Indian eta Sahara azpiko Afrikan ur-gabezia gogortzen den heinean. Herrialdeetako batez bestekoetan oinarritzen bagara, ikuspegi horrek gutxietsi egiten du egungo arazoa. Txinako iparraldeko 538 milioi lagun ur falta duten eskualdeetan bizi dira dagoeneko. Mundu osoan, 1.400 milioi lagun inguru bizi dira ura iraunkortasun-mailetatik kanpo erabiltzen den ibai-arroen inguruan.

Gabezia ekologikoan ikusten da ur falta. Zenbait ibai-sare ez dira itsasora heltzen jada, aintzirak txikiagotzen ari dira, eta lur azpiko ur geruzak beheratzen; argi dago ura gehiegi erabiltzen dela. Ibai-sareen gainbehera —Estatu Batuetako Colorado Ibaian, Txinako Ibai Horian...— gehiegi erabiltzearen ondorio nabarmena da. Hegoaldeko Asiako lur azpiko ura ere murrizten ari da, eta, hain nabarmena ez bada ere, hori oso kaltegarria da giza garapenerako. Indiako zenbait lekutan, lur azpiko ur-geruzak asko ari dira jaisten, urtean metro 1 baino gehiago; horrek arriskuan jartzen du etorkizuneko nekazaritza-ekoizpena.

Benetako eskasia-zantzuak dira horiek, baina politika-akatsak eragin dute eskasia. Uraren kudeaketari dagokionez, munduak oso zentzugabe jokatu du; izan ere, kreditu bidez finantzaturako dirutza xahutzen arituko baltz bezala ibili da. Suple esateko, herrialdeak dutena baino askoz ur gehiago erabiltzen aritu dira, berreskuratze-indizeak adierazten duen eran. Horren ondorioz, uraren zor ekologiko handia geldituko zaie hurrengo belaunaldiei. Zor horrek galdera garrantzitsuak azaleratu ditu herrialdeetako kontabilitate-sistemei buruz, kapital natural preziatu eta urri horren murrizketa neurtzen asmatu ez dutelako; halaber, belaunaldien arteko berdintasunari

buruzko zalantzak ere sortu ditu. Balio duena baino merkeago jarri da, maiz, ura (doan, batzuetan), eta horrek gehiegi erabiltzea sustatu du: Porscheak ere urri egongo lirateke, merkantuan ia doan egongo balira.

Etorkizuneko ur-erabileraren egoerek kezka larria eragiten dute. Ia mende batean, uraren erabilera ia bi aldiz azkarrago hazi da biztanleria baino. Joera horrek berean jarraituko du (13. irudia). Nekazaritza ureztaturako erabiliko da, gero ere, ur gehiena —gaur egun, erabileraren % 80 hartzen du, garapen-bidean dauden herrialdeetan— (14. irudia). Baina industriako eta hirietako eskaria azkar ari da hazten. 2050era bitartean, munduko urak nekazaritza-sistema batzuei eutsi beharko die, eta sistema horiek beste 2.700 milioi laguni jaten eman beharko die, eta lana sortu beharko du haientzat gutzientzat. Hala ere, industriak eragingo du, nekazaritzak baino gehiago, 2025era bitarterako ur-erabileran aurreikusten den hazkundea.

Eskaintza areagotzea

Garai batean, gobernuak eskaintza areagotzen saiatzen ziren, ur-gabeziari erantzuteko. Txinan eta Indian ibaiak desbideratzeko eginiko programa handiek erakusten dute proposamen horretarako joera etengabea. Beste eskaintza-aukera batzuek gero eta garrantzi handiagoa dute. Gero eta gehiago jotzen da itsas ura gezatzera, baina horrek energia-kostu handiak dituenek, aukera hori herrialde aberatsagoetarako eta itsasertzeko hirietarako da, batez ere. “Ur birtual” inportatua (inportatutako janaria ekoiztean erabilitako ura) da beste aukera bat. Hor ere aukera gutxi daude, ordea, errenta baxuko eta janari urriko herrialdeetarako —eta janariaren segurtasunerako mehatxuak daude, burujabetza galduz gero—.

Eskaria gutxitzea

Eskariaren aldeko politikek aukera gehiago dituzte eraginkorrak izateko. Produktibitatea areagotzen duen teknologia berriaren bidez *crop per drop* (tanta bakoitzeko uzta) ratioa handitzeak ur-sistemetako presioa murriztu dezake. Zentzu zabalagoan, urari prezioa jartzeko politikek hobeto adierazi behar dute ura baliabide eskasa dela. Gehiegi erabiltzea bultzatzen duten dirulaguntza gaiztoak azkar erretiratzea aurre-

Klima-aldaketa munduko uraren segurtasun-eza eraldatzen ari da

Egokitzeko nazioarteko laguntzak izan beharko luke klima-aldaketaren aurka egiteko alde askotako markoaren oinarria

rapauso handia litzateke hainbat herrialdetan —Indian eta Mexikon, kasu—. Ohartu gabe, lur azpiko ura agortzeko pizgarriak sortu dituzte, granja handiei elektrizitaterako dirulaguntzak emanez. Ondorioz, baliabide natural preziatu bat agortzeko dirulaguntzak ematen aritu dira gobernuak, eta kostuak ingurumenari —eta ondorengo belaunaldiei— eragin dizkiote.

Ziurgabetasunari aurre egitea

Garapen-bidean dauden herrialde askotako gobernuak uraren egokitzapen sakonak egin behar dituzte. Eskaintza eta eskaria ingurumen-iraunkortasunaren eta ur-kudeaketaren mugen barruan berriz jarriz gero —ur-baliabide integratuak erabiltzeko estrategia berrien helburu nagusia—, irabazleak eta galtzaileak, biak, egon daitezke. Eta guztiek irabazten duten egoerak ere badaude. Baina arrisku bat dago: behartsuen interesak albo batera utziko dira, nekazari handiek eta industriek —ahots politiko indartsua duten bi talde— beren eskakizunak aldarrikatzen dituztenean. Ura boterea da gizarte askotan, eta botere-desberdintasunek alde handiak sor ditzakete uraren eskuragarritasunean.

Ur-azpiegitura funtsezkoa da, eguraldiaren menpe bakarrik ez egoteko falta eta arriskua murrizteko. Munduan, desberdintasun itzelak daude azpiegiturak eskura izateko aukeretan. Ura biltzeko ahalmenaren adierazle arruntetan ikus daitezke: Estatu Batuek 6.000 metro kubo ur biltzen dute pertsonako; Etiopiak, 43. Alabaina, herrialde aberatsek ere badute urik gabe geratzeko arriskua, Katrina urakanak New Orleansen izandako eraginak erakusten duen eran. Baina arriskuak herrialde pobreetan dira handien.

Lehorreek eta uholdeek —uraren segurtasun-ezaren muturreko formek— hondamendia eragiten dute giza garapenean. 2005ean, Afrikako Adarrean, 20 milioi lagun baino gehiagori eragin zien lehorreak. Bien bitartean, Mozambiken izandako uholdeek % 20 inguru murriztu zuten herrialde horretako Sarrera Nazional Gordina. Prezipitazioen aldakortasunek eta euri-isuriaren erabateko aldaketek aktiboak suntsi ditzakete, lana hondatu eta ekonomia osoen hazteko ahalmena murriztu: aldakortasunak herena murrizten du Etiopiaren hazteko

ahalmena, Munduko Bankuaren esanetan. Gizarte osoek jasaten dute eragina. Baina pobreak nozitzen dituzte urarekin lotutako eragin larrienak.

Klima-aldaketari aurre egitea

Klima-aldaketa eraldatzen ari da munduko uraren segurtasun-eza. Tenperaturak gora egiteak dakarren arriskua orain nazioarteko agendan ondo finkatuta badago ere, arreta gutxiegi jarri da garapen-bidean dauden herrialdeetako nekazaritza-ekoizle babesgabeek dakarzkien ondorioetan. 1992an onartutako Klima Aldaketari buruzko Hitzarmen Markoak hauxe ohartarazten zien gobernuari: “kalte larria eta atzerazina egiteko arriskua dagoenean, ziurtasun zientifiko osoa ez izateak ez luke ekintza atzeratzeko arrazoia izan behar”. Ohartarazpen horri ez zaio jaramonik egin, eta horrek arrisku larria dakar.

Mundua berotzeak eraldatu egingo du uraren eskuragarritasuna erabakitzen duen eredu hidroklogikoa. Modelizazio-ariketek ondorio konplexuak aurreikusten dituzte, eta mikroklimak zehaztuak. Baina ageriko ondorio horren norainokoa esaldi bakar batean laburbil daiteke: munduan ur falta handiena duten eskualdeek ur gutxiago jasoko dute, ur-isuriak zailagoak izango dira aurreikusten, eta arrisku handiagoa izango da muturreko gertaerak egoteko. Aurreikusitako ondorioen artean, hauek daude:

- Ekialdeko Afrikan, Sahel eskualdean eta Hegoaldeko Afrikan, prezipitazioak gutxitu eta tenperatura igotzean, uraren eskuragarritasuna nabarmen murriztea, eta horrek oinarritzko janarien produktibitate-galerak ekartzea. Ekialdeko Afrikako lehorrerako nekazaritzarako kalkuluen arabera, % 33 murriztu daiteke artoaren ekoizpena, % 20 baino gehiago basartoarena, eta % 18 artaxikiarena.
- Janaria produzitzeko sistemak etetea, eta, ondorioz, beste 75-125 milioi lagun egotea gose-arriskuan.
- Glaziarrek garaiz aurretik urtzea, eta, hori dela-eta, epe ertainera ur-erabilgarritasuna murriztea Ekialdeko Asiako, Latinoamerikako eta Hegoaldeko Asiako herrialde askotan.

- Hegoaldeko Asian montzoiak nahastea. Horrek euri gehiago egiteko aukera dakar, baina egun euritsu gutxiago egotekoa ere bai, eta, beraz, jende gehiago jar dezake lehortearen eraginpean.
- Itsas maila igotzea eta ur geza galtzea, hainbat herrialdetako ibai-deltaren sistemetan; Bangladeshen, Egipton eta Thailandian, esaterako.

Klima-aldaketak eragindako ur-seguritasunaren arriskuari nazioarteak ez dio erantzun egokia eman. Alde askotako ahaleginak egin dira klima-aldaketa arintzeko. Ahalegin horiek funtsezkoak dira, eta karbono-isurketak gehiago mozteak lehentasuna izan behar du, oraingo Kyotoko Protokoloa 2012an amaitzen denean. Etorkizunean, munduaren berotze-maila industria aurrekoa baino 2 °C gehiago ez izateak ere lehentasuna izan behar luke. Helburu hori lortzeko, energia-politikak gehiago egokitu beharko dira, bai herrialde industrializatuetan, bai garapen-bidean dauden herrialdeetan, eta teknologia garbiak lekuz aldatzea finantzatu beharko da.

Gehiago egokitu, ez arindu bakarrik

Karbono-isurketak izugarri murriztuta ere, lehengo isurketak direla-eta, munduak klima-aldaketaren arriskuan bizi behar du gaur egun. Klima-aldaketa ez da etorkizuneko arriskua, errealitatea baizik, eta herrialdeek eta jendeak errealitate horretara egokitu behar dute. Egokitzapen-estrategia eraginkorrak garatzearen erronkak lehorreko nekazaritzan du presio larriena. Izan ere, munduko milioika jende pobreren lana ezegonkorrago bilakatuko da, prezio-pitazioak aldakorragoak izango direlako, eta batzuetan ur gutxiago izango dutelako eskura.

Egokitzeko nazioarteko laguntzak izan beharko luke klima-aldaketaren aurka egiteko alde askotako markoaren oinarria. Tamalez, ordea, laguntza ez da modu egokian eman. Kyotoko Protokoloari atxikitako Adaptazio Funtzak 20 milioi dolar bakarrik mobilizatuko ditu, 2012ra bitartean, egungo aurreikuspenen arabera; Ingurumenaren Munduko Funtzak —egokitzeko alde askotako mekanismo nagusiak—, berriz, 50 milioi dolar eman ditu, 2005 eta 2007 bitartean, ekintzak egokitzen laguntzeko.

Alde askotako markotik kanpo, nekazaritza garatzeko laguntza murriztu egin da, eta horrek egokitze-lanetarako finantza-bideak mugatu ditu. Azken hamarkadan, laguntzak ziztu bizian murriztu dira, kopuru errealetan nahiz erlatiboetan. Bada, garapen-bidean dauden herrialdeen artean, nekazaritzarako laguntzak jasotzen dituztenak, kopuru errealetan, 4.900 milioi izatek 3.200 milioi izatera pasa dira urtebetean, edo laguntza osoaren % 12 izatek % 3,5 izatera 1990eko hamarkada hasieratik. Eskualde guztiek jasan dute eragina. Sahara azpiko Afrikan, nekazaritzarako laguntza 1.000 milioi dolar baino gutxiagokoa da orain, 1990ean zenaren erdia baino gutxiago. Joera horiek aldatzea oinarritzkoa izango da ondo egokitzeko.

Hemendik aurrerako bidea


Herrialdeek, ura kudeatzean, oso erronka desberdinei egin behar diete aurre. Baina gai batzuk hedatuta daude, eta estrategia arrakastatsuetarako betebeharrak batzuk ere bai. Garrantzitsuenen artean, hauek daude:

- Ur-baliabideak kudeatzeko estrategia integratuak garatzea, herrialdeko ur-erabilerraren maila iraunkortasun ekologikoaren mugen barruan jartze aldera eta ur-baliabide guztietarako plangintza-molde koherentea emate aldera.
- Ur-baliabideen kudeaketa integratuaren baitan garrantzia batez ere berdintasunari eta pobreen interesei ematea.
- Uraren kudeaketa pobrezia murrizteko estrategia nazionalen osagai garrantzitsua izatea.
- Uraren benetako balioa onartzea, prezio-politika eginez, kontabilitate-prozedura nazionalak berrikusiz, eta gehiegi erabiltzea bultzatzen zuten laguntza gaiztoak erretiratz.
- Pobreen aldeko ur-hornidura areagotzea; hau da, industriako eta etxeko hondakinak bereizi eta jendea ekoizpenerako hondakin-ur seguruz hornitzea, eta nekazariekin lan egitea, osasun-arriskuak gutxitzeko.
- Ur-azpiegituran inbertsio nazional gehiago egitea, edota inbertitzeko nazioarteko laguntzak areagotzea, ura bildu eta uholdeak kontrolatzeko, besteak beste.

Erakundeek lehiakideen eskaerak nola ordezkatu eta kudeatzen dituzten, horrek markatuko du zer ondorio izango diren gizarteko jende pobre eta ahulenarengan —eragina izango du, halaber, gobernuek politika nazionaletan garrantzia nagusiki berdintasun-kontuei emateak edo ez emateak—.

Gutxiagizko elikadura duen jendea (%)

Artzainak, arrantzaleak eta basoetatik bizi direnak



Iturria: FAO, 2004b.

- Munduaren berokuntzari beste erantzun bat ematea, ura kudeatzeko politika nazionaletan eta laguntzetan egokitzeko estrategiei indar handiagoa emanez.
- 2010erako, nekazaritzarako laguntzak hirukoiztea, urtean 3.000 milioi dolarretik 10.000 milioira igoz. Afrikan, hornitzeko laguntza handi horrek 900 milioitik 2.100 milioira igo beharko du urtean; nekazaritza-jardueretarako hori aurreikusten dute Afrikar Batasunaren Afrikako Nekazaritza Garatzeko Programa Osoak eta Afrika Garatzeko Elkartea Berriak.

Nekazaritzako uraren lehia kudeatzea

Duela ehun urte, William Mulholland-ek, Los Angeleseko Ur Departamentuko Buruak, hiriko ur-eskasiaren arazoa konpondu zuen, oso berrikuntza eraginkor baten bidez: “ura indarrez kentzea”. Owens haraneko nekazariak erabiltzen zuten ura indarrez transferitu zuen handik 200 milia baino gehiagora, eta, horri esker, Estatu Batuetan azkarren hazten ari ziren hirietako bat bihurtu zuen Los Angeles.

Garaiak aldatu egin dira. Gaur egun, kaliforniarrek epaitegietan konpontzen dituzte ur-gatazkak. Baina garapen-bidean dauden herrialde askotan, uraren lehia ikaragarri ari da gogortzen, eta gatazka sakonak —eta, batzuetan, indarkeriazkoak— ari da eragiten. Mulhollanden eredu beste modu batean berriz agertzeko arriskua dago, eta, hori gertatuz gero, botereak erabakiko ditu emaitzak, eta ez pobrezia eta giza garapenaren inguruko ardurak.

Lehia ez da berdina herrialde guztietan. Baina bi joera nagusi hautematen dira. Lehenik, hiriguneek eta industriak ur gehiago eskatzen duten heinean, nekazaritza galtzaile aterako da —edo galtzaile izaten jarraituko du—. Bigarrenik, nekazaritzaren barruan, gogortzen ari da uraren lehia. Bi joeretan, nekazaritzak, oro har, eta nekazari-etxe pobreak, batik bat, sufritzeko arriskua dute egokitzerakoan.

Halako ondorio batek eragin larriak izango lituzke munduko pobrezia murrizteko ahaleginetan. Urbanizazioa azkar zabaltzen ari den arren, munduko muturreko pobreak nekazari-

guneetan bizi dira oraindik —eta nekazari txikiak eta nekazaritzako laborariek munduko malnutrizioaren parte handiena jasan behar dute—. Herrialde askotan, nekazaritza urreztaturako erabiltzen denez ur gehien, estualdi gorria izango da. Sistema horiek zeregin garrantzitsua dute nekazaritzako produktibitatea areagotzen, gero eta biztanleria handiagoari jaten ematen eta pobrezia gutxitzen; hori dela-eta, erronka handia dago hor giza garapenerako.

Egitura ekonomiko eta politikoen bidezko bitarteko-lana

Ur-baliabideak gero eta gehiago eskatzen direnez, nahitaez, berriro banatu behar dira erabiltzaileen eta sektoreen artean. Baliabide urriak lortzeko lehia-prozesu guztietan, egitura ekonomiko nahiz politikoez ordezkatzen dituzte lehiakideen eskaerak, eta eskubide sistemak ere bai. Uraren lehia gogortuz doan heinean, etorkizuneko eskuragarritasunari begira, gero eta nabarmenagoa izango da hainbat eragileren eskaeren indarra. Erakundeek lehiakideen eskaerak nola ordezkatu eta kudeatzen dituzten, horrek markatuko du zer ondorio izango diren gizarteko jende pobre eta ahularenengan —eragina izango du, halaber, gobernuak politika nazionaletan garrantzia nagusiki berdintasun-kontuei emateak edo ez emateak—.

Eraginkortasuna eta berdintasuna orekatzea

Egokitze-prozesuak abian daude jada. Hiriak eta industriak nekazari-guneetaraino ari dira hedatzen beren esparru hidrologikoa, eta horrek gatazkak, eta, zenbaitetan, indarkeriazko protestak ere ekarri ditu. Herrialdeen barruan, gero eta ageriago daude eskualdeen arteko eta erabiltzaileen arteko aldi bereko gatazkak.

Askoren aburuz, merkatu pribatuen bidez, merkataritzak ura izateko eskubideen arloan aurrera egitea irtenbidea litzateke; izan ere, eraginkortasuna eta berdintasuna orekatuko luke uraren banaketa berrira egokitzean. Batzuen esanetan, nekazaritza-ekoizleei ura saltzen utziz gero, baliabide urria merkatu produktiboagotara eramateko baldintzak sortuko lituzkete gobernuak, eta nekazari-ekoizleei ere kalte-ordainak eta diru-sarrerak emango lizkietekete.

Ur-merkatu pribatuek zalantzazko konponbidea ematen diote arazo sistematikoari. Estatu

Batuetan bertan ere, asko garatutako arau eta erakundeek babesten dituzten arren, zaila izan da, maiz, pobreen interesak babestea. Txilen, ur-merkatu pribatuak 1970eko hamarkadan ezarri ziren. Horrek eraginkortasuna hobetu zuen, baina desberdintasun eta merkatu-desitxuratzeko handiak ere eragin zituen, boterea pilatu eta funtsik gabeko informazioa eman zelako. Garapen-bidean dauden herrialdeetan, ahalmen instituzionala ahulagoa denez, merkatuaren mugak bestelakoak dira.

Kuotak eta lizentziak kudeatzea


Ur-merkatuak baino harago begiratu, gobernu askok kuota kuantitatibo eta lizentzien bidez egin nahi diete aurre egokitze-presioei. Ikuspegi horrek aukera gehiago ematen ditu. Hor ere, orde, botere-desoreka formal eta informalek pobreen egoera hondatzen dute. Javako mendebaldean, Indonesian, chungintza-fabrikek nekazari minifundisten ur-eskubideak bereganatu dituzte. Eta Filipinetan, ureztapen-proiektuetako nekazariak galtzaile atera dira udalerbiltzaileen aurrean. Araurik ez egoteak edo indarrean ez egoteak ere arrisku latzak dakartza. Indian, Bhavani ibaian lur azpiko ura modu araugabearen eruzteak ur gutxiago eta pobrezia gehiago ekarri du ureztatzeko sareetara.

Ur-eskubideak funtsezkoak dira nekazari-gunetako jendearen segurtasunerako. Ura izateko eskubideak bat-batean galdu edo gutxitzteak lanpostuak suntsitu, jendea ahulago utzi eta pobrezia asko indar dezake. Ur-eskubideek askoz garrantzi handiagoa dute pobreentzat aberatsentzat baino. Arrazoa argi dago: jende pobreak ez du nahikoa finantza-baliabide eta ahots politiko bere interesak babesteko, arauetan oinarritutako sistemetatik kanpo. Ur-eskubideek ezer gutxirako balio dute, betetzerakoan, abantailak boterea dutenei ematen bazaizkie.

Eskubide formalak eta ohiturazkoak orekatzea


Sahara azpiko Afrikak hainbat erronkari egin behar dio aurre. Gobernuak, herrialde emaitzen babesaz, ureztapenaren muga zabaldu nahi dute, eta eskubide sistema formalak ezarri, ohiko eskubideak osatzeko —edo ordeztzeko—. Zer ondorio izango ditu horrek giza garapenerako?

16. irudia Munduan ureztatzen den luraren erdia baino gehiago Asian dago



Iturria: FAO, 2006.

17. irudia Garapen-bidean dauden herrialde askotan, ureztatzeak pobrezia murrizten du



Oharra: Datuok herrialde bakoitzean hautaturiko zenbait lekuri dagokie

Iturria: Hussain eta Hanjra, 2003.

Ondorioak politika publikoen araberakoak izango dira. Ureztatzeko ahalmena hedatzea garrantzitsua da, produktibitatea areagotu eta arriskua murriztu dezakeelako. Eskualdea lehorreko nekazaritzaren menpe dago erabat. Baina ureztatzeko azpiegitura urria da, eta lehiakide askokoa (15. irudia). Mendebaldeko Afrikako Sahel eskualdean gertatutakoak erakusten du ureztapenaren lehia minifundistak galtzaile atera daitezkeela, ekoizle komertzialen aurrean.

Ohiturazko eskubideak kudeatzeak arazo gehiago sortzen ditu. Zenbaitek uste dutenaren aurka, ura izateko ohiko eskubideek, iraunkortasun ekologikoari eusteko, kudeaketa- eta era-

Mugaz gaindiko uraren kudeaketa giza garapeneko arazoa da; lankidetzak gatazka-arriskua murriztu dezake, bai eta onurak ekarri ere: partekaturiko uraren kalitatea hobetu, eta oparotasuna eta bizimodu seguruagoak sortu

bilera-xedapenak ezartzen dituzte. Baina askotan, oztopoak jartzen dizkiete etxe pobreei eta emakumei. Arau eta lege formalak finkatzeak ez du egoera hori ezinbestean aldatzen. Senegal ibaiaren haranean, ohiko eskubideak dituztenek ura izatetik baztertu dute gizartea, beren botereaz baliatuz. Tanzanian, ur-eskubide formalak sartzeak Pangani ibaiko nekazari komertzialei ekarri dizkie onurak, ibaiaren behealdeko nekazari txikien kalterako.

Berdintasunari garrantzi handiagoa ematea

Ur-erreformatan ikusi da berdintasunari pisu handiagoa eman behar zaiola. Lursailen birmoldaketarekingertatu ez bezala, banaketari buruzko kezkek ez dute leku berezirik ur-baliabideak kudeatzeko agenda integratuan. Badaude zenbait salbuespen —Hegoafrika, adibidez— baina horietan ere zaila izan da birbanaketa lortzea.

Ureztatzeko sareak egokitzapenaren oinarri-oinarrian daude. Ureztatzeko azpiegiturak zerikusi handia du pobreziaekin. Herrialdez haraindiko ikerketa batzuek ondorioztatu dute pobrezia nagusitasuna % 20 - % 40 txikiagoa dela ureztatzeko sareetan, haietatik kanpo baino, baina aldaera handiak daude herrialde batetik bestera (17. irudia). Badirudi ureztapena pobrezia murrizteko askoz eragile boteretsuagoa dela herrialde batzuetan beste batzuetan baino. Lurren arteko desberdintasuna faktore garrantzitsua da. Berdintasun falta handia duten herrialdeek (Indiak, Pakistanek eta Filipinek) lan kaskarragoa

egiten dute eraginkortasun eta berdintasunean, berdintasun handiagoa duten herrialdeek (Txinak eta Vietnamek) baino (17. irudia).

Ondorio horrek aditzera ematen du ez dagoela erlazio zuzenik ureztatzearen bidez produktibitatea areagotzearen eta pobrezia murriztearen artean; hau da, produktibitatea areagotuta ere, horrek ez du esan nahi pobrezia murriztuko denik. Nekazaritzan, aukera ugari daude egokitzapen-presioak antolatzeke. Horretarako, neurri batzuk hartu beharko lirateke, eraginkortasuna eta berdintasuna, biak, areagotzeko, elkarri indarra ematen dioten ziklo batean. Kostuak berdintasunez banatzea, pobreen aldeko inbertsio publikoak egitea eta kudeaketan ekoizleek parte hartzea giltzarri dira, erreforma arrakastatsua izan dadin.

Ondo errotutako genero-desberdintasunei aurre egitea

Ureztatzeko sareetan sartzeko benetako ahalmena izateko, neurriak hartu behar dira, barne-barnean sustraitutako genero-desberdintasunen aurka. Emakumeek desabantaila handiagoak dituzte ureztatzeko sareetan. Hainbat herrialdetan, lurraz izateko eskubide formalik ez dutenez, ureztatzeko sareak kudeatzetik baztertuta daude. Era berean, desberdintasun informalek direla-eta —etxeko lanen banaketa, emakumeek jendaurrean hitz egiteari buruzko arauak eta beste faktore batzuk—, emakumeek ez dute benetako ahotsik erabakiak hartzean.

Egitura horiek suntsitzea zaila dela ikusi da, baita kudeaketa-agintea gobernu-agentzietatik

1. taula 39 herrialdek atzerritik jasotzen dute ur gehiena

Eskualdea	Atzerritik uraren % 50 - % 75 jasotzen duten herrialdeak	Atzerritik uraren % 75 baino gehiago jasotzen duten herrialdeak
Arabiar Estatuak	Irak, Somalia, Sudan, Siriako Arabiar Errepublikak	Bahrain, Egipto, Kuwait
Ekialdeko Asia eta Pazifikoa	Kanbodia, Vietnam	
Latinoamerika eta Karibe	Argentina, Bolivia, Paraguai, Uruguai	
Hegoaldeko Asia		Bangladesh, Pakistan
Sahara azpiko Afrika	Benin, Txad, Kongo, Eritrea, Gambia, Mozambike, Namibia	Botswana, Mauritania, Niger
Erdialdeko eta Ekialdeko Europa eta EIK	Azerbaijan, Kroazia, Letonia, Eslovakia, Ukraina, Uzbekistan	Hungaria, Moldavia, Errumania, Serbia eta Montenegro ^a , Turkmenistan
ELGA (errenta altukoak)	Luxenburgo	Herbehereak
Beste batzuk	Israel	

a. Serbia eta Montenegro 2006ko ekainean bereizi ziren, eta estatu independenteak eratu zituzten; horrenbestez, txostena inprimatzeko unean, ez dago herrialde horietako bakoitzari dagokion daturik, atzerritik eskuratutako ur-baliabideei buruz.
Iturria: FAO, 2006.

erabiltzaileengana eramateko egitasmo handienetan ere. Andhra Pradesh-en, Indian, nekazari pobreak askoz protagonismo handiagoa dute orain kudeaketan, baina emakumezko nekazari pobreak isilik daude oraindik. Hori alda daiteke, ordea. Ugandan, ur-erabiltzaileen elkartetan emakumezko ordezkariak egotea agintzen du legediak, eta, horri esker, asko aldatu da kontua.


Pobreengana iristea

Gerora begira, uraren produktibitatea areagotzeko estrategiak pobreengana iristen direla ziurtatzea da erronka handienetakoa. Teknologia ez da neutrala, jendea banatzen duelako; izan ere, ur-baliabidee-

tatik *crop per drop* gehiago lortzeko ahaleginetan, etxe pobreak albo batera uzteko arriskua dago.

Horrek ez du beti horrela izan beharrik. Indian, lur azpiko uraren krisiari erantzuteko, berriro indartu zituzten ura biltzeko programa txikiak; hor ikusi da inbertsiorako mozkinak sortzeko gaitasuna eta, aldi berean, arriskua eta ahultasuna murriztekoa. Halaber, mikroureztatzeko teknologiak ez dira kapital asko duten eta nekazaritza intentsiboan jarduten duten ekoizleentzat bakarrik jarri behar martxan. Tantakako ureztapeneko diseinu berritzaileak eta kostu txikiko teknologiak leku askotan ezarri dira. Horietan ere, etekin sozial eta ekonomikoak handiak dira. Gutxi gorabehera,

1. mapa Aral itsasoa txikitzen ari da: kotoiaren ingurumen-kostua



Ur zikinaren eta saneamendu kaskarraren ondorioz, beste edozergatik baino jende gehiago hil da joan den mendean

kostu txikiko ureztapen-teknologiak 100 milioi minifundistarengana hedatuz gero, 100.000 milioi dolar baino gehiagoko irabazi garbiak sortuko lirarteke, eta horrek eragin handiagoa izango luke errenta igotzeko eta lana sortzeko.

Garapen-bidean dauden herrialdeetako gobernuek ura kudeatzeko helburuen eraginkortasuna eta berdintasuna orekatu behar dute, eta erronka horri aurre egiteko moduak eragin handia izango du giza garapenean. Urbaliabideak kudeatzeko politika integratuetan garrantzia pobreen interesei ematea oinarritzko printzipioa da. Baina printzipio horrek pobreen aldeko politika praktikoen babes behar du. Hauek dira garrantzitsuenetakoak:

- Etxe txiroek ura eta lurra izateko dituzten eskubideak indartzea.
- Ohiko eskubideak errespetatzea eta lege-sistema formaletan sartzeta.
- Ur-eskubideak aldarrikatzeko eta defendatzeko jende pobreen lege-ahalmena hobetzea eta arlo horretaz arduratzeko erakundeak jartzeta.
- Ureztapenean inbertsio nazional handiagoak egitea, ureztapen-arloari etendako laguntzak berriz ematea, eta datozen 20 urteetan garapenerako laguntzak bikoiztea, urtean 4.000 milioi dolarretara.
- Berdintasunez eta modu iraunkorrean kostuak banatzen dituzten mekanismoen bidez, ureztatzeko sareetan berdintasuna areagotzea, pobrezia murrizteko eta eraginkortasun-helburuak lortzeko.
- Ureztatzeko sareen kudeaketa eta finantziazioa deszentralizatzea, erabiltzaileei ahalmena emateko.
- Ureztapenaren garapena nekazaritza garatzeko programa zabalagoetan sartzeta, minifundistek nekazaritza gehiago irabazteko.
- Genero-eskubideak herrialdearen garapenaren muin bihurtzea, eta ura kudeatzeari buruzko erabakietan emakumeen ahotsa indartzeko politikak ezartzea.
- Ura biltzearen eta lur azpiko uraren politika integratuak garatzea, eta azpiegitura txikietatik handietara hedatzea.
- Pobreen aldeko teknologien garapena, banaketa eta onarpena sustatzea.

Mugaz gaindiko ura kudeatzea, giza garapenerako

Urak gizakien interdependentzia eragiten du. Herrialde guztietan, ura banatu egiten den baliabidea da, eta hainbat arlotan banatu ere: ingurumena, nekazaritza, industria eta etxeak. Baina ura baliabide iheskor nagusia ere bada. Herrialdeen mugak gainditzen ditu, eta mugaren alde bakoitzeko erabiltzaileak interdependentzia hidrologikoko sistema batean sartzen ditu.

Herrialdeen barruan uraren lehia indartuz doan heinean, presioak herrialdeen mugetatik kanpo sakabanatuko dira. Beldurra ere bada, mugaz gaindiko lehiak gatazkak eta ondorengo ur-gerrak eragingo ote dituen. Beldur hori, ordea, gehiegizkoa da: lankidetzaz gatazka baino bizi-errealitate hedatuagoa da oraindik. Alabaina, mugaz gaindiko tentsioak eta gatazka egoteko aukera hor dago. Herrialde gehienek ura banatzeko eta herrialdeen arteko gatazkak konpontzeko mekanismo instituzionalak dituzten arren, mugaz gaindiko mekanismo instituzionalak askoz ere ahulagoak dira. Ur-gabeziarekin batera erakunde ahulak egoteak gatazkarako benetako arriskuak dakartza berekin.

Interdependentzia hidrologikoa

Interdependentzia hidrologikoa ez da kontzeptu abstraktua. Munduan, bost lagunetik bi bizi dira herrialde batek baino gehiagok partekatutako ibai-arroetan (1. taula). Nazioarteko ibaiak herrialdeak lotzen dituzten hariak dira. Esaterako, Amazonas 9 herrialderen artean dago, eta Nilo 11ren artean. Ibaiek jendearen lana ere lotzen dute. Mekong-ek, munduko ibai-sistema handienetako batek, energia sortzen du goialdean, Txinan, eta, arroaren behealdean, berriz, arroz-ekoizpena eta arrain-haztegiak irauarazten ditu (60 milioi lagunek baino gehiagok dihardu lan horretan).

Interdependentzia hidrologikoak interdependentzia sakonagoa dakar berekin. Baliabide produktiboen artean, ura berezia da, inoiz ezin delako gauza baterako bakarrik erabili: sektore eta erabiltzaileen artean dabil. Eta herrialdeen barruan nahiz artean gertatzen da hori. Ibaia gertatzen da herrialdeetan ibai erabiltzeko moduak ezinbestean eragiten du behealdeko erabiltzaileek duten

Munduak urari eta saneamenduari ekiteko zortzi arrazoi—Milurtekoko Garapen Helburuekiko loturak

Denbora-epe batean munduan pobrezia gorria gainditzeko eta giza askatasuna zabaltzeko jarri dira Milurtekoko Garapen Helburuak. 2015. urterako lortu beharreko erreferentzia kuantitatiboak baino gehiago dira, denon garapen-lehentasunen ikuspegi zabala laburtzen baitute. Ikuspegi horren oinarrian, ideia hau dago: pobrezia gorria eta aukera-desberdintasun handiak ez dira gizakiaren ezinbesteko ezaugarriak; gaitz hori senda daiteke, baina egungo egoerak, aldatu ezean, gizaki guztiak gutxi-agozteaz gain, denon segurtasuna eta ongizatea arriskuan jartzen du.

Milurtekoko Garapen Helburuak askotarikoak dira eta garapenaren alderdi asko hartzen dituzte; esaterako, pobrezia gorriaren murrizketa, genero-berdintasuna, osasuna, hezkuntza eta ingurumena. Alderdi horiek lotuta daude, interkonexio-sare konplexu baten bitartez. Alor horietako batean aurrerapenak izateko, funtsezkoa da

beste alor guztietan ere aurrerapenak izatea. Alorren batean aurrerapenik lortzen ez bada, multzo zabal batean hobekuntzak lortzea atzeratuko da. Urak eta saneamenduak ederki frogatzen dituzte lotura horiek. Alor horietan aurrerapenak azkar lortzen ez badira, herrialde askok ez dituzte beteko Milurtekoko Garapen Helburuak. Munduko milioika pobreenetakoak pobrezian bizitzera eta osasun kaskarra eta aukera gutxi izatera kondenatuko dira, egoera horiek saihegarriak izanda ere, eta, horrez gain, emaitza horiek herrialdeen barneko eta herrialdeen arteko alde sakonak betikotuko lituzke. Giza garapena Milurtekoko Garapen Helburuak lortzea baino gehiago bada ere, helburu-multzo hori erreferentzia-esparru erabilgarria da alor horien guztien arteko loturak ulertzeko, bai eta ur eta saneamenduan aurrerapenak lortzearen garrantzia ulertzeko ere.

Milurtekoko Garapen Helburua

Zergatik ekin beharko luketen gobernuek

Nola ekin beharko luketen gobernuek

1. helburua: Pobrezia gorria eta gosea errotik desagerraraztea

- Ur garbia eta saneamendu egokia ez izatea faktore garrantzitsuak dira pobrezia eta malnutrizioa izateko:
 - Garapen-bidean dauden herrialdeetako bost pertsonatik batek —1.100 milioi, guztira— ez du ur-iturri hobetu bat erabiltzeko aukera.
 - Bi pertsonatik batek —2.600 milioi, guztira— ez dauka saneamendu egokirik erabiltzeko aukera.
 - Urarekin eta saneamenduarekin lotutako gaixotasunak eta produktibitate-galerak BPGaren % 2koak dira garapen-bidean dauden herrialdeetan. Afrika azpiko Saharan BPGaren % 5ekoak ere badira —eskualde horrek laguntzetan jasotzen duena baino gehiago, hain zuzen—.
 - Herrialde pobreenetako askotan, familia pobreenen % 25ek bakarrik du ura etxera bideraturik; familia aberatsenei dagokienez, ehuneko hori % 85ekoa da.
 - Familia pobreenek ura 10 aldiz garestiago ordaintzen dute, familia aberatsenek baino.
- Ura ekoizpen-faktore funtsezkoa da nekazaritza minifundistentzat (eguneko 1 \$ baino gutxiagorekin bizi den munduko populazioaren erdia baino gehiago dira).
- Gero eta presio handiagoa dago nekazaritzan erabiltzen den ura industrian erabiltzeko, eta horrek landako pobrezia areagotu dezake.

- Milurtekoko Garapen Helburuak lortzeko, herrialdeetako eta nazioarteko estrategietan ura eta saneamendua sartzeko politikak behar dira. Politika horiek helburu hauek bete beharko lituzkete:
 - Ura eskuratzea giza eskubide bihurtzea, eta eskubide hori erabiltzeko legedia apurka-apurka ezartzea, pertsona guztiak eguneko 20 litro ur garbi eskuratzen dutela bermatzeko.
 - Inbertsio publikoa areagotzea, ur-sarea hirietan zabaltzeko eta landa-eremuetan ur-hornikuntza gehitzeko.
 - "Salbamendu-tarifak" eta subsidio gurutzatuak erabiltzea, eta behin-behineko iturrietan inbertitzea, pobrezia dela-eta ura inori ukatzen ez zaiola bermatzeko. Ura eskuratzen gastatutakoak, gehienez jota, ez luke izan behar familiaren errentaren % 3 baino gehiago.
 - Ur-zerbitzuak arautzea, zerbitzuen eraginkortasuna areagotzeko, berdintasuna hobetzeko eta pobreekiko erantzukizuna bermatzeko.
- Nekazaritzako ur-baliabideak garatzean, iraunkortasuna eta berdintasuna lotzen dituzten politikak erabili beharko lituzkete.
- Pobreen aldeko urreztapen-teknologiaren garapena eta erabilera sustatu beharko lukete.

2. helburua: Lehen Hezkuntza unibertsala erdiestea

- Ura hartu eta distantzia handian eraman behar izateagatik, milioika neska ezin dira eskolara joan. Horrenbestez, analfabetoak dira eta etorkizunerako aukera mugatuak dituzte.
- Urarekin lotutako gaixotasunen (esaterako, beherakoaren eta parasito-infekzioen) kostua 443 milioi eskola-egunekoa da —Etiopiako zazpi urteko haur guztiak ikasturte batez eskolara ez joateari dagozkion eskola-egunen kopuruaren parekoa—. Horrez gain, ikaste-ahalmena gutxitzen da.
- Herrialde askotako eskoletan ur eta saneamendu egokirik ez izateak heriotza-arriskua dakarkie haurrei.
- Eskoletan ur eta saneamendu egokia ez izateak eragin handia du neskek eskola joateari uzteko.
- Uraren eta saneamendu kaskarraren bidez transmititutako parasito-infekzioek 150 milioi haurren baino gehiagoren ikaste-ahalmena atzeratzen dute.

- Lehen hezkuntza unibertsala lortzeko helburuak eta estrategiak beste estrategia hauekin lotu beharko lituzkete: eskola guztietan ur eta saneamendu egokia —neskentzako instalazio bereziak eta guzti— dituztela bermatzeko estrategiek.
- Saneamendua eta higiena eskola-curriculumean sartu beharko lituzkete; haurrei osasun-arriskuak nola murriztu irakatsi beharko liekete; eta haurrak gaitu beharko lituzkete, nor bere komunitatean eragile izateko.
- Eskoletan eta komunitateetan osasun publikoko programak jarri beharko lituzkete martxan, urarekin lotutako gaixotasun infekziosoak prebenitzeko eta artatzeko.

(hurrengo orrialdean jarraitzen du)

Munduak urari eta saneamenduari ekiteko zortzi arrazoi—Milurtekoko Garapen Helburuekiko loturak (jarraipena)

Milurtekoko Garapen Helburua	Zergatik ekin beharko luketen gobernuak	Nola ekin beharko luketen gobernuak
<p>3. helburua: Generoen arteko berdintasuna eta emakumeen botere-hartzea sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ura eta saneamendua ez izateak genero-desberdintasuna betikitzen du eta ahalmena kentzen die emakumeei. • Emakumeak arduratzen dira ura biltzeaz. Horretarako, sarritan, egunean 4 ordu eman behar dituzte, ibiltzen, ilaratan itxaroten eta ura garraiatzen. Hori da beste gauza batzuetarako denbora ez izatearen arrazoi nagusietako bat. • Uraren bidez transmititutako gaixotasunak dituzten haurrak zaintzen eman behar duten denbora dela-eta, emakumeek aukera gutxiago dituzte ekoizpen-lanetan jarduteko. • Saneamendu desegokiak duintasun-galera eta segurtasun-gabezia dakarkie milioika emakumeri. • Herrialde askotan, emakumeak arduratzen dira janari-ekoizpenaren zati handienaz, baina ura eskuratzeko eskubidea murriztuta dute. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ura eta saneamendua eskuratzeari dagokionez, genero-berdintasuna hartu beharko lukete herrialdeko pobrezia murrizteko estrategien oinarritzat. • Ur-batzordeetan eta beste erakunde batzuetan emakumeen ordezkaritza izatera derrigortzen duen legedia ezarri beharko lukete. • Inbertsio publikoei eta familietako gastuei buruzko erabakietan emakumeen iritzia gehiago kontuan hartzeko kanpainak sustatu beharko lituzkete. • Jabetza-eskubideen erreformari, eta ureztatzea eta ur-erabiltzaileen beste elkartzeko batzuk arautzen dituzten arauen erreformari heldu beharko liekete, emakumeek gizonezkoen eskubide berdinarik dituztela bermatzeko.
<p>4. helburua: Haurren heriotza-tasa murriztea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Beherakoak jota urtero hiltzen diren 1.800 milioi haurretatik —ia 5.000 egunean—, gehienak ur zikinaren eta saneamendu kaskarraren ondorioz gaixotzen dira. Beherakoa da, hain zuzen, haurren heriotzaren bigarren eragile nagusia. • Ur garbia eta saneamendua eskuratu ahal izateak erdira murriztu dezake haurren heriotza-arriskua. • Ur zikinak eraginiko beherakoa munduko heriotza-eragile nagusietako bat da: GIB/HIESaren ondorioz hildako haurrak halako bost hiltzen dira beherakoak jota. • Ur garbia eta saneamendua dira haurren heriotza prebenitzeko neurri eraginkorrenetakoak: ur eta saneamenduari buruzko Milurtekoko Garapen Helburuan lorpen oinarri-oinarrikoenak izanda ere, milioi 1en bizia salbatuko litzateke datorren hamarkadan; ura eta saneamendua den-denei helduz gero, berriz, 2 milioirena. • Uraren bidez transmititutako gaixotasunak gizarte-desberdintasun sakon eta bidegabeak sendotzen dituzte: familia pobreetako haurrek hiltzeko arrisku handiagoa dute (hiruzpalau aldiz handiagoa), familia aberatsetako haurrek baino. 	<ul style="list-style-type: none"> • Uraren eta saneamenduaren ondorioz haurrak hiltzea larrialdi nazionaltzat jo beharko lukete, bai eta oinarritzko giza eskubideen urraketatzat ere. • Beherakoa prebenitzeko eta artatzeko oinarritzko osasun-zaintza sendotzeko erabili beharko lukete nazioarteko laguntza. • Lotura esplizituak ezarri beharko lituzkete haurren heriotza-tasa murrizteko helburuaren eta ur eta saneamenduaren eskuragarritasuna hedatzeko helburuaren artean. • Ur eta saneamenduari buruzko inbertsio publikoan eta zerbitzua emateko estrategietan, lehenetsuna eman beharko liekete familia pobreenen beharrei. • Pobrezia Murrizteko Estrategiari buruzko Agirietan haurren heriotza-tasaren eta uraren eta saneamenduaren arteko lotura aitortzen dela ziurtatu beharko lukete. • Ur- eta saneamendu-arazoaren ondorioz urtero hiltzen diren haurren kopuruari buruzko kalkuluak argitaratu beharko lituzkete.
<p>5. helburua: Amen osasuna hobetzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Uraz eta saneamenduaz hornitzeak murriztu egiten du amaren osasuna hondatzen duten eta amen heriotza-tasa areagotzen duten gaixotasunen eta gaitzen —esaterako, anemia, bitamina-eskasia eta trakoma— eragina. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ur- eta saneamendu-hornikuntza genero-berdintasunaren aldeko estrategien osagai nagusietakotzat jo beharko lukete. • Urari eta saneamenduari buruzko erabakietan eragiteko ahalmena eman beharko liekete emakumeei, familian nahiz tokiko eta herrialdeko esparruetan.
<p>6. helburua: GIB/HIESari, paludismoari eta beste gaixotasun batzuei aurre egitea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ur eta saneamendu egokia ezin eskuratzeko higienarako aukerak murrizten ditu. Horrenbestez, GIB/HIESak jotako jendeak arrisku handiagoa du infekzioak izateko. • GIBaz kutsatutako amek ur garbia behar dute formulako esnea egiteko. • Urari eta saneamenduari buruzko Milurtekoko Garapen Helburua lortuz gero, osasun-sistemek 1.700 milioi \$ gutxiago gastatuko lukete uraren bidez transmititutako gaixotasun infekzioak artatzen, eta baliabide gehiago izango lituzkete GIB/HIESa artatzeko. • Saneamendua eta estolderia kaskarrak badira, arrisku handiagoa dago malaria sortzeko. 1,3 milioi lagun hiltzen dira urtero malariak (horietatik % 90 bost urtetik beherako haurrak dira). 	<ul style="list-style-type: none"> • Ura eta saneamendua integratu beharko lituzkete, paludismoari (malariari) aurre egiteko eta GIB/HIESaz jotako pazienteen bizi-baldintzak hobetzeko herrialde- eta mundu-estrategietan. • GIB/HIESak jotako norbait zaintzen duten familiek egunean 50 litro ur doan eskuratzeko dutela bermatu beharko lukete. • Estolderia- eta saneamendu-instalazioetan euli- eta eltxo-kopurua murrizteko inbertitu beharko lukete.

Munduak urari eta saneamenduari ekiteko zortzi arrazoi—Milurtekoko Garapen Helburuekiko loturak (jarraipena)

Milurtekoko Garapen Helburua	Zergatik ekin beharko luketen gobernuek	Nola ekin beharko luketen gobernuek
<p>7. helburua: Ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea</p> <p><i>Edateko urik eta saneamendu-bitartekorik ez duten pertsonen ehuneko erdira murriztea</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> Egungo martxan, urik eta saneamendurik eskura ez duen jendearen ehuneko erdira murrizteko helburua ez da lortuko. Urari dagokionez, helburuan ezarritakoa baino 234 milioi pertsona gutxiagok eskuratuko dute, eta saneamenduari dagokionez, berriz, 430 milioi pertsona gutxiagok. Sahara azpiko Afrikan, saneamendu-konexioetan diru gehiago erabili beharko dute. Azken hamarkadan, urteko 7 milioi erabili zituzten; 2015erako, urteko 28 milioi erabili beharko dituzte. Uraren eta saneamenduaren alorrean aurrerapenak geldoak badira, beste arlo batzuetan ere aurrerapenak moteldu egingo dira. 	<ul style="list-style-type: none"> Neurri praktikoak jarri beharko lituzkete martxan, Milurtekoko Garapen Helburuen konpromisoak ekintza praktikotara bihurtzeko. Aitzindari izan beharko lukete beren herrialdean nahiz nazioartean, uraren eta saneamenduaren arloko urritasunak gainditzeko. Milurtekoko Garapen Helburuaz gain, % 20 aberatsenaren eta % 20 pobreenaren artean ur- eta saneamendu-horniduran dagoen aldea erdira murrizteko helburua izan beharko lukete. Arautzaile independenteei ahalmena eman beharko liekete, zerbitzu-hornitzaileei erantzukizunak eskatzeko, pobreei zerbitzu eraginkorra eta arrazoizko prezioan emateari buruz.
<p>Ingurumen-baliabideen galera etetea eta baliabide horiek berreskuratzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Garapen iraunkorrarekin bat ez datorren ur-baliabideen ustiatetak gero eta gehiago mehatxatzen du giza garapena. Ekologiaren aldetik, ustiateta horrek kitaezinezko zorra sortzen du, eta zor hori datozen belaunaldiak utziko zaie. Gaur egun, 700 milioi pertsona bizi dira estres hidrikoko egoera duten herrialdeetan. 2025. urterako, pertsona-kopuru hori 3.000 milioi izango da. Ibai-arro askotan, arrotik hartzen den ura errekarga-maila minimoa baino gehiago da; horren ondorioz, ibaiak lehortzen ari dira, eta lurpeko ura agortzen. Egun, 1.400 milioi pertsona inguru bizi da horrelako egoera duten ibai-arroetan. Ura ziurtatuta ez izateak, klima-aldaketarekin batera, malnutrizioa areagotzeko arriskua dakar (75-125 milioi pertsona gehiago 2080. urterako). Sahara azpiko Afrikan, oinarriko elikagaien ekoizpena % 25 murriztu daiteke. Asian eta Ekialde Ertainean, lurpeko ura agortzeak mehatxu larria dakar nekazaritza-sistemei, janari ekoizpena bermatzeari eta mantenuari. 	<ul style="list-style-type: none"> Natura-baliabide urritzat jo beharko lukete ura, eta ez ingurumen-iraunkortasuna kontuan hartu gabe ustia eta gasta daitekeen salgaiztat. Herrialdeko kontuak aldatu beharko lituzkete, ur-baliabideak agortzearekin lotutako galera ekonomikoak islatzeko. Ur-baliabideen kudeaketarako politika integratuak erabili beharko lituzkete. Politika horietan, uraren erabilera ingurumen-iraunkortasunaren arabera mugatu beharko lituzkete, ingurumenaren beharrak betetzen laguntzeko. Ura kontserbatzeagatik pizgarriak ematen dituzten politikak instituzionalizatu beharko lituzkete, eta ur-erabileraren eredu xahutzaileak—iraunkortasuna kontuan hartzen ez dutenak—sustatzen dituzten subsidio gaiztoak ezabatu. Karbono-isurpenak mugatzeko Kyotoko Protokoloan adierazitako xedapenak indartu beharko lituzkete, estabilizazio helburuak lortzeko (milioi 450 zati). Teknologia garbiak transferitzeko mekanismoak ere sustatu beharko lituzkete, eta herrialde guztiak elkartu, 2012. urterako isurpenak murrizte aldera. Egokitze-estrategiak garatu beharko lituzkete herrialdeetan, klima-aldaketaren eragina kudeatzeko eta egokitzeko laguntzak gehi daitezkeen.
<p>8. helburua: Garapenerako munduko itun bat sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Ez dago munduko lankidetzaren eraginkorrik ur- eta saneamendu-arazoetarako, eta goi-mailako biltzarretan ez dute lortu ura eta saneamendua nazioarteko agendan sartzeko behar den bultzada. Herrialde askotako gobernuek huts egiten ari dira aurrerapenak azkartzeko behar diren politikak eta finantziak martxan jartzeko. Ura eta saneamendua ez daude oso integratuta Pobrezia Murrizteko Estrategiei buruzko Agirietan. Beherakoagatik hildako haurren tasa handia duten herrialde askotan, BPGaren % 0,5 baino gutxiago ari dira gastatzen uran eta saneamenduan (gastu militarretan gastatzen dutenaren zati bat baino ez). Herrialde aberatsek nazioarteko laguntzarako lankidetzan ez diote lehentasuna eman uraren eta saneamenduaren alorrari. Sektore hori garatzeko laguntza gutxitu egin da; gaur egun, laguntza-fluxu osoen % 4 da. 1990eko hamarkadaren hasieratik, nekazaritzarako laguntzak heren bat murriztu dira (guztizko laguntzaren % 12tik % 3,5era). 	<ul style="list-style-type: none"> Munduko ekintza-plan bat jarri beharko lukete martxan, ekintza politikoa suspertzeko; ura eta saneamendua G8 taldearen agendan sartu beharko lukete, bai eta baliabideak mobilizatu eta herrialde-esparruko plangintza-prozesuak babestu ere. Herrialde-esparruko planak garatu beharko lituzkete. Plan horien bidez, urari eta saneamenduari buruzko Milurtekoko Garapen Helburua lortu beharko lukete, epe ertainerako finantziario-neurri zehatzekin eta desberdintasuna gainditzeko politika praktikoeekin. Tokiko gobernuei eta komunitateei ahalmena eman beharko liekete, deszentralizazioaren, gaitasuna garatzearen eta finantziario egokiaren bidez. Gutxienez, BPGaren % 1 erabili beharko lituzkete ur eta saneamenduan, gastu publikoaren bidez. Urarentzako laguntzak gehitu beharko lituzkete, 3.600–4.000 milioi \$ urteko, 2010. urterako. Horrez gain, Sahara azpiko Afrikari 2.000 milioi \$-eko laguntza eman beharko litzaioke. Nekazaritzarako laguntzak handitu beharko lituzkete, urteko 3.000 milioi \$-etik 10.000 milioi \$-era, 2010. urterako. Ur-hornidura bermatzea nabarmendu beharko lukete.

ur-kantitatean, ur-abiadan eta ur-kalitatean. Interdependentzia bera dago akuifero eta aintziretan.

Mugaz gaindiko uraren kudeaketa zergatik da giza garapeneko kontua? Arlo horretako akatsak kalte handiak eragin ditzaketelako: berdintasun-eza, ingurumenaren iraunkortasun-eza eta galera sozial eta ekonomiko handiagoak.

Ez da adibiderik falta. Aral itsasoa munduan gizakiak eragindako hondamendi ekologiko handiena da batzuen ustez, eta muturreko adibidea da (1. mapa). Ibai-sistemei eta aintzirei gehiegi erabiltzeagatik eragindako kalteak ez dira hain aintzakotzat hartu: Sahara azpiko Afrikan, Chad aintzira txikitzen ari da, esaterako.

Ura berdintasunik gabe kudeatzeak desorekak eta uraren segurtasun falta areagotu ditzake. Esaterako, Palestinako Lurralde Okupatueta jendeak ur-ekasia larria du. Arrazoieta bat lurrazaleko ura eskuratzeko aukera mugatua dutela da. Baina bada arrazoi handiagorik ere: Mendebaldeko Ibaiertzeko akuiferoak inongo berdintasunik gabe banatzen dira Israelen eta Palestinaren artean. Mendebaldeko Ibaiertzeko kolono israeldar bakoitzak, batez beste, bederatzir aldiz ur gehiago erabiltzen du ur-baliabide berberak darabiltzan palestinarrak baino.

Lankidetzaren onurak giza garapenerako

Banatueta urak kudeatzeko lankidetzaren arrakatsua lortzeak onurak ekar ditzake giza garapenerako; alde askotatik, gainera. Gatazka egoteko aukerak murrizteaz gain, lankidetzaren onura handiak ekar ditzake: banatueta uraren kalitatea hobetzea, oparotasuna eta lanpostu seguruagoak sortzea, eta lankidetzaren zabalagorako aukera.

Esperientzian biak nabarmentzen dira: lankidetzaren balizko onurak eta lankidetzaren faltaren kostuak. Europar Batasuneko herrialdeek, lankidetzaren bidez, izugarri hobetu dituzte ibai-urari buruzko arauak, eta horrek onurak ekarri ditu industriarako, giza osasunerako eta etxetako erabiltzaileentzat. Hegoaldeko Afrikan, azpiegitura-programa bateratua diru-sarrerak ari da sortzen Leshotorako, eta ur hobia Hegoafrikarako. Brasilek eta Paraguaik ibaia batera kudeatzetik onurak ateratu dituzte, energia sortu baitute. Erdialdeko Asiako herrialdeak, berriz, gogotik ari dira ordaintzen lankidetzaren eza, ureztapenean eta ur-energian galera ikaragarriak ari baitira izaten.

Ur-gerrak aurreikusten dituztenek bestela uste badute ere, urari buruzko gatazka salbuespena izan da, ez legea. Azken 50 urteetan, ura dela-eta 37 indarkeria-kasu egon dira estatuen artean, eta gehienak liskar txikiak izan dira. Aitzitik, urari buruzko 200 itun negoziatu dira. Itun horietako batzuei —Indiaren eta Pakistanen arteko Indus Arrorako Itunari, kasu— eutsi egin zaie, gatazka armatuetan ere.

Oro har gatazka armaturik egon ez den arren, lankidetzaren mugatua izan da maiz. Ur-emaria teknologikoki kudeatzean eta bolumenaren arabera esleitzean oinarritu da, batez ere (18. irudia). Ibai-arro batzuetako ekimenak —Nilo Arroko Ekimena batik bat— egoera hori aldatzen hasi dira. Garapena oztopatu egin dute, ordea, ebazpen mugatuek, ahalmen instituzional ahulak eta finantzaketa-urritasunak. Arlo horietan, nazioarteko lankidetzaren elkarrekin aldaketa handia eragin dezakete.

* * *

Ura giza bizitzaren alderdi guztietan dago. Historian, uraren kudeaketak erronka tekniko eta politiko handiak jarri dizkie jendeari eta gobernuei. Uraren kudeaketaren historia giza argitasunaren eta giza ahuleziaren historia da. Bai antzinako Erromako ubideak, bai XIX. mendeko Europako eta Estatu Batuetako herri-lan handiak, teknologia berritzaileei esker hornitu ahal izan dira bizitzeko ur garbiaz. Era berean, ur zikinak eta saneamendu kaskarrak beste edozerk baino jende gehiago hil dute joan den mendean, eta garapen-bidean dauden herrialde askotan berdin jarraitzen dute.

Lanerako uraren kudeaketak are historia luzeagoa du. Indus haranean eta Mesopotamian, zibilizazioa agertu zenetik, ura baliabide produktibo gisa kudeatzeko azpiegitura-sistema burutsuak egin dira. Helburua uraren ahalmen produktiboaz baliatzea izan da, eta suntsitzeko ahalmena mugatzea. Ahalgin horietan akatsak egitean edo ur-zikloaren aldaketak gertatzean, gizakia oso ahul geratu da, eta zibilizazioak desagertu egin dira, nekazaritza-sistemek gainbehera egin dute eta ingurumena hondatu egin da. Klima-aldaketaren arriskua eta munduko ur gezako baliabideen gaineko presioa gero eta handiagoak direnez, XXI. mendean, uraren gobernantza izan daiteke giza historian izandako erronkarik izugarriena.

Giza garapenaren egoera

Mahbub ul Haq-ek 1990ean lehen *Giza Garapenari buruzko Txostenean*, idatzi zuenez, “Garapenaren oinarritzko helburua ingurune egokia sortzea da, jendeari bizitza luzea, osasuntsua eta sortzailea izaten uzteko. Hamasei urte geroago, ikuspegi horrek oihartzun handia du oraindik.

Jendea da herrialdeen benetako aberastasuna. Egia soil hori ahaztu egiten dugu batzuetan. Herrialdeko errentaren gorabeherak hipnotizatuta (BPGaren arabera neurtua), giza ongizatea aberastasun materialarekin parekatzeko joera dugu. BPGaren hazkunderaren eta egonkortasun ekonomikoaren garrantzia ez da gutxietsi behar: biak ere funtsezkoak dira giza aurrerapen iraunkorra izateko, halakorik ez duten hainbat herrialdetan garbi ikusten den bezala. Baina aurrerapena neurtzeko azken irizpidea jendearen bizi-kalitatea da. Aristotelesek zioen moduan, “Aberastasuna ez da bilatzen dugun ondasuna, beste zerbait lortzeko baino ez baitu balio”. “Beste zerbait” hori jendeak gizaki den aldetik duen ahalmena gauzatzeko duen aukera da. Benetako aukera benetako aukerak izatean datza —errenta nahikoa eta hezkuntza nahiz osasun ona dituen eta tiraniak agintzen ez duen herrialde batean bizitzeak sortzen dituen aukera horiek—. Amartya Sen-ek honako hau idatzi zuen: “Garapena... jendeak dituen benetako askatasunak zabaltzeko prozesutzat har daiteke”.

Azken hamarkadetan, aberastasun materialaren eta oparotasunaren inoizko hazkunderik handiena gertatu da munduan. Aldi berean, hazkunde hori ez da parekatua izan, jende askori aurrerapenak ez baitio eragin. Pobrezia jendetsua, barne-barnean errotutako berdintasun-eza eta politikan jarduteko ahalmen falta direla-eta, munduko biztanleriaren zati handi bati ukatu egiten zaio benetako aukerak egiteko askatasuna. Are gehiago, BPGa neurtzean, oraindik


ere ez da kontuan hartzen ingurumenaren degradazioa eta baliabide naturalen gutxitzea.

Giza garapenaren indizea

1990az geroztik, txosten honek urtero argitaratu du giza garapenaren indizea (GGI); BPGak baino harago begiratzen du, ongizatearen definizioa ematean. GGIak hiru dimentsiotan neurtzen du giza garapena: bizitza luzea eta osasuntsua izatea (bizi-itxaropenaren arabera neurtua), hezkuntza izatea (helduen alfabetatzearen eta lehen, bigarren eta goi-mailako hezkuntzako matrikulen arabera neurtua) eta bizi-maila duina izatea (botere-parekotasunaren, erosteko ahalmenaren parekotasunaren eta errentaren arabera neurtua). Indizeak ez du modu zorrotzean neurtzen giza garapena, inola ere. Esaterako, ez ditu kontuan hartzen adierazle garrantzitsu hauek: giza eskubideekiko errespetua, demokrazia eta berdintasun-eza. Baina giza aurrerapenaren ikuspegi zabalagoa ematen du, errenta eta ongizatearen arteko erlazio konplexua eta guzti.

Aurtengo GGIIa 2004ari buruzkoa da, eta ongizatean eta bizitzako aukeretan alde handia dagoela nabarmentzen du, eta tarte horrek gure mundu gero eta interkonektatuago hau banatzen duela. Estatu Batuetako presidente John F. Kennedyk esan zuenez, “itsasgoran, txalupa guztiek gora egiten dute”. Baina giza garapenari ari garenean, munduko oparotasunaren gorakako mareak txalupa batzuk beste batzuk baino azkarrago goratu ditu —eta beste txalupa batzuk azkar hondoratzen ari dira—. Globalizazioaren alderdi positiboak nabarmentzen dituztenak urrunegi joaten dira. Egoera berria deskribatzeko, gero eta gehiago hitz egiten dute herri globalaz. Baina giza garapenaren ikuspuntutik, herri globala errotik banatuta dago:

1. irudia **Errentatik GGiara: batzuk beste batzuk baino hobeto daude**



aberatsen kaleak alde batetik, eta pobreen kaleak, bestetik. Norvegiako pertsona bat (GGIaren arabera sailkapenean goi-goian) eta Nigerreko pertsona bat (beheko postuetan) giza garapen ezberdineko auzoetan bizi dira herri global horretan. Norvegiako jendea Nigerrekoa baino 40 aldiz aberatsagoa da. Ia bi aldiz gehiago bizi dira. Eta ia haur guztiak matrikulatzen dira lehen, bigarren eta goimailako hezkuntzan. Nigerren, berriz, haurren % 21 baino ez. Izan ere, giza garapen txikiko kategorian dauden 31 herrialdeetan —munduko biztanleriaren % 9 dago hor—, jaiotzako bizi-itxaropena 46 urtekoa da; hau da, giza garapen handiko herrialdeetan baino 32 urte gutxiagokoa.

GGIak beste gai nagusi bat ere nabarmen-tzen du, sortu zenetik *Giza Garapenari buruzko Txostenean* egon dena. Normalean, giza garapenaren adierazleek errentaren arabera egiten dute gora edo behera. Hori ez da harritzekoa. Batez besteko errenta oso baxuak, batetik, eta jende askok pobreziazko errentak izatea, bestetik, faktore garrantzitsuak dira munduan oinarritzko askatasunak ez izateko, eta, horren ondorioz, jendeari uko egiten zaio elikadura egokia lortzeko, gaixotasunak sendatzeko edo hezkuntza izateko ahalmena. GGIak erakusten du lotura positiboa dagoela errentaren eta osasun nahiz hezkuntzaren artean: herrialde aberatsuetako jendeak diru gehiago eta hezkuntza-aukera gehiago izan ohi ditu. Beste gauza batean ere jartzen du arreta: herrialde batzuek beste batzuek baino askoz hobeto bideratzen dute aberastasuna osasun- eta hezkuntza-aukeretara.

Zenbait herrialde askoz beherago daude GGIaren arabera sailkapenean errentaren arabera sailkapenean baino; beste zenbait, berriz, alderantziz. Esaterako, Vietnam nahiko pobrea da oraindik, baina GGIaren arabera sailkapenean gorago dago baina GGIaren arabera sailkapenean gorago dago. Kontrakoa gertatzen da Bahrainen. Han, batez besteko errenta Txilekoaren bikoitza da ia, baina, aurrerapenak egin berri badituzte ere, GGIaren arabera sailkapenean beherago dago, hezkuntza- eta alfabetatze-arloek errendimendu eskasa dutelako. Sahara azpiko Afrikan, Tanzaniaren batez besteko errenta Angolarenaren herena da, baina GGIaren arabera sailkapenean antzeko lekuan dago —emaitza horrek erakusten du gatazkak giza kostu handia eragin duela Angolan (1. irudia)—.

Gobernuek, askotan, beren jardueraren ondoko herrialdeenarekin konparatzeko tresna gisa erabiltzen dute GGIa. Giza Garapena lortzeko lehia borroka sanoa da —BPGaren lehia baino sanoagoa dela esan daiteke—. Hala ere, gobernuek premia handiko gaiak alde batera uzteko joera-edo izan dute; adibidez, ez dute kontuan hartu zergatik dagoen halako aldea munduko herrialdeen errentaren arabera sailkapenean eta GGIaren arabera sailkapenean artean. Batzuetan, alde horien zergatia arazo jakinetan egon daiteke (adibidez, Hegoaldeko Afrikan GIB/HIESa). Beste batzuetan, nazio-politiken ondorio izan daitezke, osasun eta hezkuntzarako aukerak ematerakoan huts egin dutelako.

Sailkapeneko goiko zatia hartuta, GGIak zehaztasun gutxiagoz neurtzen ditu mugaz haraindiko esparruan egindako jarduerak. Alfabetatze eta hezkuntza-matrikulazio ia unibertsalak eta bizi-itxaropen handiak kopuruak parekatzen dituzte herrialdeen artean (txosten osoko 1. ohar tekniko). Baina hor ere indizeak aldeak nabarmen-tzen ditu errentaren arabera sailkapenean eta GGI orokorraren arabera sailkapenean artean. Adibidez, Estatu Batuetako biztanleak, batez beste, munduko bigarren aberatsenak dira, Luxenburgoren atzetik, baina Estatu Batuak sei postu atzerago daude GGIaren arabera sailkapenean errentaren arabera sailkapenean baino. Horren arrazoi bat da bizi-itxaropena hiru urte motzagoa dela Suedian baino —batez besteko errenta laurden bat txikiagoa da Suedian—. Giza garapen handikoen taldean, Txile eta Kuba askoz aurrerago daude GGIaren arabera sailkapenean, errentaren arabera sailkapenean baino.

Lorpen-eremu askotako datuak batzen dituen beste edozein indizeren antzera, GGIa etengabe egokituz doa, informatzeko sistema estatistikoak aldatu ahala. Batzuetan, aldaketa horiek eragina izan dezakete herrialde baten sailkapenean, eragin positiboa edo negatiboa, herrialdean egindakoa dena delakoa izanda ere. Aurtengo GGIak erakusten du arazoa. Hainbat herrialdeetan, beren GGI-puntuazioak behera egin duela ikusi dute, eta ez jarduteko modua aldatu dutelako, hezkuntzari buruz informatzeko sistemak aldatu direlako baizik. Definizioz, GGIrako erabilitako eskola-matrikulazioei

buruzko datuetan ez litzateke helduen hezkuntzako daturik kontuan hartu behar. Alabaina, 32 herrialde inguruk helduen hezkuntza ere sartu zuten, eskola-matrikulazioen berri ematean. Aurten, herrialde horiek datuak aldatu dituzte, anomalia hori zuzentze aldera. Datuak uniformeagoak eta zehatzagoak dira orain. Baina aldaketa hori dela-eta, hainbat herrialdek behera egin dute GGIaren araberako sailkapenean; besteak beste, Argentina, Belgika, Brasil, Paraguai, Peru eta Erresuma Batuak. Brasilek informazio estatistikoa aldatu delako egin du behera, batik bat, GGIaren araberako sailkapenean —63tik 69ra—, hezkuntzan benetako atzerakadarik ez baitu egin. Antzeko emaitzak ikus daitezke talde horretako beste herrialdeetan ere.

Giza garapenaren joerak: GGIIa eta gehiago


Giza garapeneko joerak kontu garrantzitsu askoren berri ematen dute. 1970eko hamarkadaren erdialdetik, ia eskualde guztiak igo dute pixkanaka beren GGIIa. Ekialdeko eta Hegoaldeko Asiak azkarrago egin dute aurrera 1990az gero. Erdialdeko eta Ekialdeko Europak eta Estatu Independenteen Konfederazioak (EIK), 1990eko lehen erdiko gainbehera ikaragarriaren ostean, indarrak hartu dituzte berriro, eta atzerakada baino lehenagoko maila berreskuratu. Salbuespenik handiena Sahara azpiko Afrika da. 1990az geroztik gelditu dago, hein batean, erabateko aldaketa ekonomikoak eraginda, baina, batez ere, GIB/HIESak bizi-itxaropenean eragindako hondamendia dela-eta. Hamazortzi herrialdek GGI baxuagoa dute gaur egun 1990ean baino —gehienak Sahara azpiko Afrikakoak dira—. Egun, giza garapen txikiko 31 herrialdeetatik 28 Sahara azpiko Afrikan daude. Horrek erakusten du Milurtekoko Garapen Helburuetarako zeinen garrantzitsua den herrialdearen eginahalak eta mundu osoko elkarrekin bultzatzea, Afrikako jendeak gaur egun dituen gizarte-desabantaila handiak gainditze aldera.

Batzuen iritziz, giza garapenaren hobekuntzak frogatu egiten du garapen-bidean dauden herrialdeak eta herrialde garatuak hurbiltzen ari direla. Oro har hartuta, irudipen hori egia

da: garapen-bidean dauden herrialdeetan, giza garapenaren adierazleak etengabe hobetu dira hainbat hamarkadatan. Baina bateratzea oso maila ezberdinetan ari da gertatzen eskualde bakoitzean —eta abiapuntu ezberdinetatik—. Giza garapeneko desberdintasunak handiak dira oraindik, eta herrialde askorentzat dibergentzia eguneroko kontua da. Hori ikusteko, GGIIa bermatzen duten funtsezko adierazle batzuei erreparatu behar zaie.

Bizi-itxaropena

Azken hiru hamarkadetan, garapen-bidean dauden herrialdeak, oro har, herrialde garatuak hurbilduz joan dira bizi-itxaropenean. Jaiotzako bizi-itxaropena bederatzi urtez luzatu da; errenta altuko herrialdeetan, berriz, zazpi urtez. Salbuespena Sahara azpiko Afrika da, berriro ere. Izan ere, eskualde osoan, bizi-itxaropena laburragoa da egun, duela hiru hamarkada baino —eta datu latz horrek ere ez du arazo osoa irudikatzen—. Hegoaldeko Afrikako hainbat herrialdeetan ere, izugarri egin du behera bizi-itxaropenak: 20 urte Botswanan, 16 Swazilandian eta 13na Lesothon eta Zambian. Aldaketa demografiko horiek Frantziar Lehen Mundu Gerraren ostean izandakoak baino handiagoak dira (ikus *Giza Garapenari buruzko Txostena 2005*). Bizi-itxaropenaren generoan ere aldaketa handia gertatu da. Sahara azpiko Afrikan, emakumeek GIB/HIES infekzioen gero eta proportzio handiagoa dute, eta joera hori ikaragarri ari da jaisten emakumeen bizi-itxaropena, gizonenarekiko. GIB/HIESa prebenitza eta tratatza da neurri garrantzitsuena, eskualdearen zati handi batean giza garapenerako joerak berriz ere positiboak izateko (1. laukia).



1. koadroa GIB/HIESaren feminizazioa Sahara azpiko Afrikan

GIB/HIESaren ondorioz, herrialde askok atzera egin dute giza garapenean. 39 milioi lagun baino gehiago daude GIBaz kutsatuta. Birus horrek sortzen du HIESa; 2005ean, gaixotasun horrek 3 milioi lagun hil zituen. Bizi-itxaropenaren beherakadak izan du giza garapenaren indizean (GGI) eraginik nabarmenena. Ez da hain agerian gelditu gaixotasuna emakumeengan zabaldu dela batez ere, eta horrek ondorioak dituela genero-berdintasunean.

Sahara azpiko Afrikan, krisiaren epizentroan, kutsatuen indizea askoz azkarrago igo da emakumeen artean gizonezkoen artean baino (1. irudia). Emakumeak eskualdean GIBaz kutsatuta daudenen % 57 dira orain, eta Afrikako emakume gazteek (15-24 urtekoek) hiru aldiz aukera gehiago dituzte birusaz kutsatzeko gizonezkoek baino.


Pandemia hori Afrikako herrialde askoren egitura demografikoa aldatzen ari da. Emakumeek kutsatzeko aukera gehiago dute, eta birusaren ondorioz gazteago hiltzeko ere bai. Hegoaldeko Afrikan, horrek irauli egin ditu gizonezkoen eta emakumezkoen bizi-itxaropeneko ereduak (2. irudia). Horrela jarraituz gero, 2005-10 bitarteko, Botswanan, Lesothon, Hegoafrikan eta Swazilandian, batez besteko bizi-itxaropena bi urte gutxiagokoa izango da emakumeentzat gizonezkoentzat baino; 1990-95 artean, berriz, zazpi urte gehiagokoa zen. GIB/HIESaz hildakoen proportzio handi bat emakumeak izatearen arrazoia gazterik ezkontzean edo sexu-harremanak izatean egon daiteke, halakoetan emakume gazteen eta nesken arriskua areagotzen da-eta.

Hala ere, GIB/HIESari buruzko Nazio Batuen Programa Bateratuak zehatz-mehatz aztertu zituen 11 herrialde, eta egiaztatu zuenez, zortzi herrialdetan, 15 urtetik beherako gazte gutxiagok izaten dituzte sexu-harremanak, eta kondoiak gehiago erabiltzen dira. Tratamendu-kontuak ere bide onetik doaz: Sahara azpiko Afrikan, droga antierretrobiralak 100.000 lagunek hartzen zituzten 2003an, eta 2005ean, berriz, 810.000 lagunek. Baina egun tratamendua behar duten 4,7 milioi lagunetatik seitek batek bakarrik jasotzen du. Eta estaldura-indizeak oso desberdinak dira: % 80 baino gehiago Botswanan, eta % 4 Angolan. Hegoafrikak, berak bakarrik, tratamendua jasotzen ari direnen laurdena hartzen du.

Genero-joera hori prebentzioan eta tratamenduan ere betetzen al da? Ez dago garbi. Prebentzioan, botere-harreman desorekatuek emakume eta neska gazteei egin diezaiekete kalte, erabakiak hartzeko ahalmen gutxiago dutelako. Hezkuntza-desabantaila da beste faktore bat. Eskolak garrantzitsuak dira GIB/HIESari buruzko heziketarako, baina eskolatzean genero-desberdintasunak daudenez, neskek dira kaltetuak. Egun, tratamenduan ez dago joera sistematikorik. Etiopian eta Ghanan, emakume gutxiagok jasotzen dute tratamendua, kutsatuen indizeei begiratuta espero zitekeena baino, baina Hegoafrikan eta Tanzanian, espero baino emakume gehiagok.


Herrialde askotan, estigma, beldurra, buruzagitza ahula eta parte-hartze politiko desegokia oztopo izan dira GIB/HIESaren aurka erantzun egokia emateko, eta Sahara azpiko Afrikako emakumeek, gizonek bezala, horren ondorioak sufritzen dituzte. Dena den, badute zer irabazia, HIES, Malaria eta Tuberkulosiaren aurkako Munduko Funtsaren helburua betetzen bada; hau da, 2010erako munduko 10 milioi lagunari tratamendu antierretrobirala ematen bazaie. Garrantzitsua da, halaber, herrialde industrializatuetako G7 taldeak 2010erako tratamendua ahalik jende gehien eskura jartzeko hartutako konpromisoa. Era berean, herrialdeetako gobernuak, prebentzio- eta tratamendu-estrategiak sortzerakoan, genero kontuan hartu eta genero-desberdintasuna murriztu behar lukete.

1. irudia Sahara azpiko Afrika: krisia emakumeena da, gero eta gehiago



Oharra: Datuok helduei dagozkie (15 urtekoek eta zaharragoek)
Iturria: UNAIDS, 2006.

2. irudia Bizi-itxaropena: Hegoafrikako genero-zoritxar handia



Iturria: NB 2005b.

Haurren heriotza-tasa

Haurren biziraute-indizea da giza ongizatearen adierazle adierazgarrienetako bat. Hor ere badaude joera pozgarri batzuk. Haurren heriotza-tasak murrizten ari dira: 2,1 milioi haur gutxiago hil ziren 2004an 1990ean baino. Bizirauteko aukerak handitzen ari dira eskualde guztietan (2. irudia). Hala ere, 2004an 10,8 milioi haur hil izanak adierazten du bizi-aukera guztietatik oinarritzekoenean, bizirik egoteko aukeran, desoreka nabaria dagoela. Herri globalean okerreko kalean jaiotzeak arrisku larria dakar bizirauteko aukeretan.

Garapen-bidean dauden herrialde askotako haurrentzat, arriskuaren diferentziala handitzen ari da. Garapen-bidean dauden herrialde guztietan, haurren heriotza-tasa errenta altuko herrialdeetako tasaren multiplokat adieraziz gero, tasa hori igotzen ari da. Are gehiago, haurren heriotza-tasa motelago ari da murrizten herrialde askotan. 1980ko hamarkadan haurren heriotza-tasaren murrizpenaren erregistratutako aurrerapenari eutsi izan balitzaio, 2004an 1,5 milioi haur gutxiago hilko ziren munduan. Haurren heriotza-tasaren murrizketa moteltzeak ondorioak ditu Milurteko Garapen Helburuetan. Martxa honetan, 2015erako heriotza-tasa orokorra bi heren murrizteko helburua ez da beteko, urtean 4,4 milioi haur hilko dira-eta. Sahara azpiko Afrikan, hiru herrialde bakarrik daude helburua lortzeko bidean.

Haurren heriotza-tasak, agian, beste edozein adierazlek baino argiago frogatzen du errenta igotzeak ez duela zertan giza garapena hobetu. Aberastasuna sortzeari dagokionez, globalizazioak Indian izan du arrakasta: 1990etik aurrera, per capita BPGa % 4 hazi da urtean. Baina haurren heriotza-tasaren murrizpena moteldu egin da: urtean % 2,9 murriztu zen 1980ko hamarkadan, eta % 2,2, 1990etik. Indiak Bangladeshek baino hazkunde ekonomiko eta batez besteko errenta handiagoa du; baina Bangladeshen Indian baino gehiago murriztu dira haurren heriotza-tasak: urtean % 3,45, hain zuzen, 1990etik. Indiako haurrek eta Bangladesheko haurrek bizirauteko duten aukera-desberdintasuna ikusirik, argi dago aberastasuna tresna mugatua dela giza garapena neurtzeko.

Hezkuntza

Hezkuntza hobetzea funtsezkoa da giza garapenerako, bai berez, bai osasunarekin, berdint-


tasunarekin eta ahalmenak ematearekin lotuta dagoelako. Hor ere, hobekuntza edalontzi erdi hutsa edo erdi betea da. Gauza asko lortu dira, baina gabezia handiak daude oraindik.

Gaur egungo analfabetismoa iraganeko hezkuntza-gabezien ondorena da. 1990etik aurrera, helduen alfabetatze-tasak % 75etik % 82ra igo dira; alegia, munduko analfabetoen kopurua 100 milioi murriztu da. Hobekuntza gutxiago egin dira genero-berdintasunean. Emakumeek helduen analfabetismoaren ia bi heren hartzen dituzte, 1990eko hamarkadan bezalaxe. Lehen hezkuntzako matrikulazio-tasa garbiek gora egin dute garapen-bidean dauden herrialdeetan, eta matrikulazioan genero-berdintasuna lortzeko tartea estutzen ari da eskualde guztietan. Berri on horiez gain, ordea, txarrak ere badaude: 115 milioi haur eskolatik kanpo daude oraindik, eta horietatik 62 milioi neskak dira.

Lehen hezkuntzako matrikulazioko aldeek hezkuntzaren hobekuntzaren ikuspegi garrantzitsua adierazten dute, baina ikuspegi bakarra. Ezagutzan oinarritutako ekonomia global honetan, kalitate oneko lehen hezkuntza lortzea ibilbideko lehen urratsa baino ez da, eta ez helmuga. Ikuspuntu zabalago horretatik, munduko hezkuntza-aukeren banaketan desberdintasun izugarria dago oraindik. Burkina Fasoko haur batek, batez beste, 4 urtez izan dezake hezkuntza; errenta altuko herrialde gehienetan, 15 urte baino gehiagoan. Oraingo hezkuntza-desberdintasun handi horiek errenta- eta osasun-desberdintasunak izango dira bihar. Beraz, honako hauei aurre egin behar zaie:

- *Eskola ez amaitzea.* Garapen-bidean dauden herrialdeetan, bost haurretik batek lehen hezkuntza bukatu aurretik uzten ditu ikasketak. Batzuetan, matrikulazio-tasa handiek ezkutatu egiten dute zeinen aurrerapen kaxkarra egin den letra eta zenbakietarako oinarritzko gaitasunak lortzeko. Txaden, Malawin eta Ruandan, eskolan matrikulatzen diren haurren % 40k baino gutxiagok amaitzen du lehen hezkuntzako ziklo osoa.
- *Bigarren hezkuntzara edo harago igarotakoen tasa txikiak.* Herrialde aberatsetan, lehen hezkuntza burutu duten haurren % 80k baino gutxiagok jarraitzen ditu ikasketak bigarren mailan. Erdiak baino gehiago joaten

3. irudia Zenbait herrialdetan, hezkuntzan ere genero-diskriminazioa pairatzen dute neskek



dira goi-mailako hezkuntzara. Egoera oso bestelakoa da Sahara azpiko Afrikan: haurren erdiak baino gutxiago igarotzen dira lehen hezkuntzatik bigarrenera. 37 herrialdek dituzte % 40tik beherako matrikulazio-tasak bigarren hezkuntzan, eta horietatik 26 Sahara azpiko Afrikan daude.

- *Genero-desberdintasun handia lehen hezkuntzaren ondoren.* Nesken eta mutilen matrikulazio-aldea estutzen ari bada ere, desberdintasun handiak daude oraindik bigarren eta goi-mailako hezkuntzan (3. irudia). Desberdintasun horiek erakusten dute genero-bazterkeria instituzionalizatuak emakumeak kaltetzen dituela, aukerak mugatu eta errenta eta lanerako bideak gutxitzen baitizkie. Amaren heziketaren eta haurraren osasunaren arteko loturak direla medio, genero-bazterkeriak haurren heriotza-tasak murrizteko aurrerapena ere geldiarazten du.

Pobreziako errenta eta errentaren banaketa

Pobreziako errenta, 1990etik aurrera, eskualde guztietan murriztu da, Sahara azpiko Afrikan izan ezik. Munduan, egunean 1\$ baino gutxiagorekin

bizi direnen proportzioa % 28tik % 21era jaitsi da, eta 1.000 milioi lagun baino apur bat gehiago geratu da atalase horren azpitik. Txinaren eta Indiaren hazkunde ekonomiko handia izan da murrizpen horren kausa nagusia. Sahara azpiko Afrikan bakarrik areagotu dira biak: pobreziaren hedapena eta pobreen guztizko kopurua. Han, 300 milioi lagun inguru —eskualdeko biztanleriaren ia erdia— egunean 1\$ baino gutxiagorekin bizi da.

Muturreko pobreziako errentan bizi direnen kopurua 2015erako erdira murrizteko helburua lortzeko bidean da mundua, oro har; Sahara azpiko Afrika, berriz, ez doa bide horretan, ez eta beste eskualdeetako herrialde asko ere. Herrialdeetako datuek adierazten dute 380 milioi lagunek ez dituztela 2015erako helburuak beteko. Ekonomia global oparagoan halako pobrezia-maila handiak egoteak esan nahi du aberastasun-alde izugarriak daudela, eta pobreek munduko errentaren oso zati txikia hartzen dutela:

- Munduko biztanleriaren % 20 egunean 1\$ baino gutxiagorekin bizi da, eta munduko errentaren % 1,5 jasotzen du. % 40 pobreenak egunean 2\$ baino gutxiagoko pobreziatalasea du, eta munduko errentaren % 5 jasotzen du.
- Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeko (ELGA) herrialdeetan (errenta altukoak denak), 10 lagunetik bederatzita daude munduko errentarik handienak dituzten pertsonen % 20ren artean. Balantzaren beste muturrean, Sahara azpiko Afrikan, bi lagunetik bat dago munduko errenta pobreenak dituzten pertsonen % 20ren artean, eta beheko % 20 horretan dagoen jendeak hartzen duen eremua bikoiztu baino gehiago egin da 1980tik hona (guztizkoaren % 36).
- Mundu osoko batez besteko errenta 5.533 dolarrekoa da (erosteko ahalmenaren parekotasuna), baina munduko biztanleen % 80 batez besteko hori baino gutxiagorekin bizi da. Errentaren batez besteko horren eta medianaren balioaren (1.700\$ 2000. urtean) artean dagoen aldeak adierazten du munduko desoreka.
- Munduko 500 lagun aberatsenek 100.000 milioi dolar baino gehiagoko errenta dute, aberastasun aktiboa kontuan hartu gabe. 416 milioi pobreen errenta guztiak batera


baino gehiago da hori. Munduko errenta-banaketaren goiko aldean aberastasun-metaketa itzela gertatu da, beheko pobrezia murrizketa baino itzelagoa. 2004ko *Munduko Aberastasunaren Txostenean* (Merrill Lynch-ek prestatua) kalkulatu zenez, “ondare handiko 7,7 milioi pertsonaren” finantza aktiboak 28 bilioi dolarretara iritsi ziren 2003an, eta 2008rako 41 bilioi dolarretara iritsiko zirela aurreikusten zen.

Globalizazioak eztabaida luzea sortu du munduko errenta-banaketaren joerek izan behar luketen norabide zehatzei buruz. Batzuetan, ordea, ahaztu egiten dugu desoreka zeinen sakona den —eta nolako ahalmena daukagun berdintasun handiagoa lortu eta pobrezia azkarago murrizteko—. 2000ko erosteko ahalmenaren parekotasunaren arabera neurtuta, 300.000 milioi dolarreko alde dago munduko biztanleriaren % 20 pobreenaren errentaren eta egunean dolar bateko pobrezia-mugaren artean. Alde handia dirudi, baina munduko % 10 aberatsenaren errenten % 2 baino gutxiago da. Pobreziazko errentaren inguruko 2015erako helburuak lortzeko giltzarrietako bat munduko errentaren banaketan berdintasun handiagoa lortzea da. Horretarako, herrialdea hazteko estrategia zehatzak eta zabalak landu behar dira, eta nazioarteko ekintzaren babesa lortu, laguntzen, merkataritzaren eta teknologiaren arloan.

Berdintasun-eza eta giza garapena

GGIak herrialdean giza garapenean lortutako batez besteko errendimenduaren berri ematen du. Alabaina, batez bestekoek ilundu egin ditzakete herrialdeen arteko alde handiak. Errentan, aberastasunean, generoan, arrazan eta beste gizarte-desabantaila batzuetan oinarritutako desberdintasunak nahiz kokapena kontuan hartzen baditugu, herrialdeetako batez bestekoak ez dira ongizatearen adierazle onak.

Erabil al daiteke GGIa herrialdeen artean dauden giza garapeneko desberdintasunak neurtzeko? Aurtengo *Giza Garapenari buruzko Txostenerako* egindako ikerketek gai hori jorratu dute, herrialdeko GGIa errenta-kintilatan banatzen saiatuz. Saiakera horretarako, garapen-bidean dauden 13 herrialde eta bi herrialde



garatu —Finlandia eta Estatu Batuak— hartu ziren, haiei buruzko nahikoa datu baitzeuden.

Herrialdeen barruan, errenta-talde ezberdinetarako GGI-puntuazioak sortzeak erronka tekniko handiak dakartza berekin (ikus txosten osoko 2. ohar tekniko). Etxeko errentaren ikerketa estandarizatu eta Demografia eta Osasun Ikerketei esker, adierazlerako datuak atera daitezke, errenta-banaketako sailkapen osoan zehar. Datuak eskuratzeko eta konparatzeko arazoak daudenean, nekez ateratzen dira herrialdeen artean erkatzeko moduko adierazleak. Beste arazo bat zera da, GGI-puntuazioa errenta-taldean arabera ateratzeko behar diren datuak ez direla eskuragarri egoten errenta altuko herrialde askorentzat. Arazo horiek egonik ere, nazioartean erka daitezkeen eta errenta-talde nazionaletan oinarrituta dauden GGI-puntuazioak tresna indartsua dira ahalmen-galeraren norainokoa ulertzeko.

Errenta-taldearen arabera GGIak giza garapenean desoreka latzak daudela adierazten du (4. irudia). Burkina Fason, Madagaskarren eta Zambian % 20 aberatsenaren GGI-puntuazioa % 20 pobreenaren bikoitza-edo da. Bolivian,

Nikaraguan eta Hegoafrikan ere alde handiak nabari dira. Errenta handiko herrialdeetan, GGiA errenta-taldean arabera hartuz gero, aberatsen eta pobreen arteko aldeak txikiagoak dira; hein batean, errenta-aldeak ez direlako hain nabarmen islatzen bizi-itxaropenean eta oinarrizko hezkuntzan. Hala ere, Estatu Batuetan alde esanguratsuak daude errenta-taldearen araberrako GGian.


Sailkapen nazionaletatik kanpo, herrialdez haraindiko konparaketek agerian uzten dute giza garapenaren desoreka:

- Boliviarren % 20 aberatsenaren sailkapena goi-mailako giza garapenaren sailkapenean egoteko modukoa da, Poloniaren ondoan; % 20 pobreenaren maila, berriz, Pakistango batez bestekoaren parekoa da. Bi taldeen artean 97 postu daude GGiaren araberrako munduko sailkapenean. Nikaraguako % 20 aberatsenaren eta pobreenaren artean GGian dagoen aldea 87 postukoa da munduko sailkapenean.
- Hegoafrikan, % 20 aberatsena % 20 pobreena baino 101 postu aurrerago dago GGiaren araberrako sailkapenean.
- Indonesian, mutur batean, % 20 aberatsena Txekiar Errepublikaren parean dago, eta, beste muturrean, % 20 pobreena Kanbo-diakoaren parean.
- Estatu Batuetako % 20 aberatsena (ondoren, Finlandia) giza garapeneko lorpenen zerrendan aurrena izango litzateke, eta Estatu Batuetako kintil pobreena, berriz, 50.a litzateke.

GGiA ezberdintasunen atzean: haurren heriotza-tasa eta hezkuntza-desberdintasunak

Errenta-taldearen araberrako GGiA ongizatearen alderdi-multzo garrantzitsu baten adierazlea da. Indize horren atzean, desberdintasun handiak daude bizitzako aukeretan eta ahalmenetan, errenta-desberdintasunak direla-eta. Hori argi ikusteko, ikerketan sartutako herrialde batzuen etxex etxeko datuetara jo dezakegu.

Bolivialian, Indonesian eta Hegoafrikan, errenta-banaketaren % 20 pobreenan jaiotako haurrek arrisku handia dute bost urte




bete baino lehen hiltzeko: % 20 aberatsenean jaiotako haurrek baino lau aldiz handiagoa (5. irudia). Eskola amaitzen dutenen indizeak ere desberdinak dira, eta genero-desberdintasunak eta aberastasun-desberdintasunak daude tartean. Burkina Fasoko errenta-banaketaren % 20 pobreenan dauden haurrek, bai neskek bai mutilek, askoz aukera gutxiago dituzte lehen hezkuntza amaitzeko, errenta altuko haurrek baino, nahiz eta nesken eta mutilen artean ere aldeak agerikoak diren. Bizitzako aukeretan alde horiek abantailak eta desabantailak zehazten dituzten gizarte-adierazleetan oinarrituta daude, eta politika publikoen beharra dago, funtsezko askatasunak emanez, guztiei aukera berdina eskaintzeko.

Arlo horietako alde ikaragarri horiek gainditzeko betebeharrak moralaz gain, ezberdintasunek ondorio garrantzitsuak dakartzate Milurtekoko Garapen Helburuetarako. Haurren heriotza-tasa bi heren murrizteko helbururako, adibidez. Haurren heriotza-tasa orokorretik familia

6. irudia

Alde handiak giza garapenean, Kenyako barrutien artean



Iturria: UNDP 2005c.

pobreek herrialdeko haur-heriotza guztien zati desproporzionatua dute (herrialdeko batez bestekoa baino bi edo hiru aldiz handiagoa). Nikaraguan eta Perun, esaterako, haur-heriotzen % 40 inguru etxeen % 20 pobreenetan gertatzen da. Pobreen artean heriotza-tasak murrizteko politiketara esker, azkarrago egin daiteke aurrera helburua lortzeko bidean, nahiz eta, herrialde gehienetan, haurren heriotza-tasaren inguruko desorekak handitzen ari diren: pobreen artean, heriotza-tasaren murrizketa-indizea aberatsenaren erdia da, batez beste.

Familien errenta alde batera utzita, GGIaren osagaiak bereiziz gero, arlo askotan ikus daitezke desberdintasunak. Herrialde askotan, eskualdeen artean alde handiak daudela erakusten du. Kenyan, GGIa 0,75ekoa da Nairobin (Turkiaren parekoa-edo), eta 0,29 Turkunan, herrialdearen iparraldeko artzain-eremu batean. Turkana herrialdea izango balitz, egungo GGI-eskalatik kanpo egongo litzateke, dezente tarteaz gainera, eskualdeko ohiko lehorteen, osasun-eskuragarritasun eta ur-azpiegitura kaskarraren eta malnutrizio-indize handien erakusgarri.

Eskualdeen artean ez ezik, landaren eta hirien artean ere badira desberdintasunak. Txinan, Shangai hiria 24.a izango litzateke munduko GGIaren araberrako sailkapenean, Greziaren gainetik; Guizhou landa-inguruko probintzia, berri, Botswanaren parean egongo litzateke.

Herrialde batzuetan, oso alde handiak daude GGIan, zer taldetakoak zaren. Adibidez,

Guatemalan, giza garapenerako aukerak askoz murriztagoak dira indigenentzat. Q'eqchi-ak Kamerunen parean daude GGIaren araberrako sailkapenean, eta *ladinoak* baino 32 postu beherago (Indonesiaren antzera).

Errenta-desberdintasuna

Berdintasun-erak galdera garrantzitsua sortzen ditu, gizarte guztietako justizia sozialaren eta zuzentasunaren aldeko arauci buruz. Errenta-banaketaren ereduak nutrizio, osasun eta hezkuntzarako aukeretan eragin zuzena dutenez, errenta-desberdintasuna oso lotuta dago ahalmen-desabantailak gero eta handiagoak izatearekin, baita, zenbaitean, inolako ahalmenik ez izatearekin ere.

Errenta-desberdintasun handiak daude eskualdeen artean. *Gini* koefizienteak desberdintasuna neurtzen du, 0tik (berdintasun osoa) 100erako (desberdintasun osoa) eskalan. Bada, koefiziente hori 33koa da Hegoaldeko Asian, 57koa Latinoamerikan eta 70etik gorakoa Sahara azpiko Afrikan. Mugaz gairdiko konparaketetan tentuz ibili behar bada ere, eskualdeen arteko desberdintasun horiek % 20 aberatsenaren eta pobreenaren arteko errenta-banaketa desorekatuarekin daude lotuta. Errentaren batez bestekoaren eta medianaren arteko tarte ere adierazten dute, desberdintasunak handitu egiten baitu tarte hori. Mexiko desberdintasun handiko herrialdea da, eta errentaren mediana batez bestekoaren % 51 besterik ez da. Vietnamen errentaren banaketa parekatuagoa da, eta mediana batez bestekoaren % 77 da.

Errenta-banaketa zergatik da garrantzitsua pobrezia murrizteko? Herrialde bateko pobreziazko errenten indizea jaitea bi aldagaiko funtzioa da: hazkunde ekonomikoaren indizea eta pobreek jaso duten hazkunde-igoeraren zatia. Beste aldagaia berdina izanda, pobreek jasotako errenta-zatia zenbat eta handiagoa, orduan eta eraginkorragoa da herrialdea, hazkunde pobrezia murrizteko erabiltzen. Errenta banatzeko ereduak bere horretan eutsi eta oraingo hazkunde-indizeak etorkizunera bideratuz gero, hiru hamarkada beharko litzateke Mexikoko etxe pobre arrunt batek pobrezia murrizteko. Etorkizuneko errenta-hazkundera pobreen zatia bikoizteak erdira murriztuko luke epe hori. Kenyan, 17 urte laburtuko luke epea,

2030etik 2013ra. Bilakaera horri esker, gertu egongo litzateke pobreziazko errenta erdira murrizteko helburutik; bestela lor ez litekeen Milurtekoko Garapen Helburutik, hain zuzen.

Adibide horiek erakusten duten eran, banaketa garrantzitsua da, hazkunde ekonomikoak horren arabera murriztuko baitu pobrezia (pobrezia hazkunde-elasticotasuna). Horrela, hazkundera % 1 igotzen den bakoitzean, pobrezia % 1,5 murrizten da Vietnamen —Mexikoko % 0,75en bikoitza—. Alde ona zera da, muturreko desoreka ez dela bizitzako errealitate aldazina. Azken bost urteetan, Brasilek, munduko herrialde desorekatuenetakoa, errendimendu ekonomiko indartsua izan du, eta, aldi berean, pobrezia eta errenta-desberdintasunak behera egin dute (herrialdeko iturrien arabera, *Gini* indizeak behera egin du, 2001eko 56tik 2004ko 54ra). Hazkunde ekonomikoak lana sortu du, eta soldata errealak igo. Eta ongizate sozialerako programa handi batek —*Bolsa Familia*— finantza-transferentziak egin dizkio muturreko edo erdi mailako pobrezian zeuden 7 milioi familiari, nutrizioa, osasuna eta hezkuntza babesteko. Horrek etekinak eman ditu orain, eta geroarako aktiboak sortu.

Errenta-banaketa ez da garapen-bidean dauden herrialdeen kontua bakarrik. Estatu Batuetako errenta-kintilen arabera GGIak nabarmendu bezala, munduko herrialde aberatsenetako batzuetan ere garrantzitsua da. Azken mende laurdenean, Estatu Batuetako errenta-banaketan behera dauden eta erdian nahiz goian dauden arteko tartea ikaragarri zabaldu da. 1980 eta 2004 artean, etxeen % 1 aberatse-

nen errenta % 135 ingurukoa zen (batez beste, \$721.000 baino gehiagoko errenta, 2004an). Urte horietan, industriako soldata errealak % 1 jaitsi ziren. % 1 aberatsenaren errenta nazionalerako zatia bikoiztu egin zen (% 16), aldi horretan bertan. Beste era batera esanda, Estatu Batuetan hazkundera eragin duten produktibitate-hobekuntzak gizartearen atal aberatsenatara bideratu dira, hein handi batean.

Desoreka gero eta handiagoak murrizten al ditu aukerak? Galdera horri erantzuteko modu bat gurasoen irabazi-ahalmenak seme-alaben gero irabazietan zer-nolako eragina duen neurtzea litzateke. Desoreka gutxiko herrialdeetan —Danimarka eta Norvegia, kasu— gurasoen errentatik dator seme-alaben irabazien % 20. Estatu Batuetan —eta Erresuma Batuan—, zifra hori % 50etik gorakoa da.

Edozein herrialdeetan, errentan eta aukeretan desoreka handiak badaude, giza garapena mugatuta gelditzen da. Desoreka horiek, dinamismo ekonomikorako, hazkunderako eta kohesio sozialerako ondorio kaltegarriak ekartzeaz gain, hazkundera giza garapenerako erabiltzea mugatzen dute. Berdin gertatzen da munduan ere; aberatsak eta pobreak banatzen dituzten mugak gero eta nabariagoak dira, eta jendea ez dago ados horrekin. Hurrengo hamarkadetan, giza garapenerako erronka nagusietako bat muturreko desberdintasunekiko tolerantzia murriztea da, tolerantzia hori izan baita globalizazioaren bereizgarria 1990eko hamarkadaren hasieratik. Era berean, oparotasunak gora egitean, jende askori eman beharko dizkio aukerak, eta ez pribilegiatu gutxi batzuei.